

GUaiXE.eus



Oskorriren zein kanta gustatzen zaizu?



Kultura >> 15

Bakaikun, larunbatean, Gaztain Mozte Eguna. Gaztainak garai batean izan zuen garrantzia gogorarazteko balioko du



Sakanerria >> 6



Ganboa: «Epaiketa politiko batean egon gara»

>> 8



Gazte Eguna hartuko du Irurtzunek bihar

>> 5

LH-ko 12 talde Bertsolaritza eskola programan >> 14

Gazteek Etxarriko Gazte txokoa mustu dute >> 9



Saria izanen dute

>> 3



Domu Santu Eguna hilerrira bisitak eta loreak

>> 7



Sakanako Futbol 8 Topaketa hasi da

>> 12



Beraza EHko km bertikaletako beterano onena

>> 11



Anarik kontzertua eskainiko du Altsasun

>> 15

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€

Enaitz eta Arturo
ZORIONAK bikote!

Hamarkada ezberdinak baina bihotz berekoak.
Altsasukuek.

Enaitz eta Arturo
ZORIONAK bikote!!

Aurten asko dakau ospatzeko! Astebete ongi pasako diaulakuen gaude. Muxu potolo bana, Oinatz, amatxo eta etxeko guzirik.

Beñat Muñoa
Goikoetxea

Bost eta bat sei urte eder. Ibon, Eider eta familia guzti-guztiaren partetik: ZORIONAK Beñat!!

Garazi
ZORIONAK

Garazi! Segi beste urte askoan zure lagunei irribarre bat ateratzen eta zarena izaten. 26 muxu goxo.

Ibai Galarza
Zubiria

ZORIONAK zure 6. urtebetetzeari familia osoaren partez. Muxu pilo bat!

Ibai Galarza
Zubiria

Gutxinaka gutxinaka handitzen. Muxu handi bat denon partetik. ZORIONAK eta ondo pasa.

lastailak-azaroak

30-5

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Garabatos eta Itaca Band. Lastailaren 30ean, ostiralean, 22:30ean Altsasuko gaztetxean.

Anari. Lastailaren 31n, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

El Drogas y La (Des)Memoria Band. Lastailaren 31n, larunbatean, 22:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean.

Itziarren Semeak, Kaotiko, Kalera eta Triki. Lastailaren 31n, larunbatean, 22:30etik aurrera Irurtzungo frontoian. IAGA

Marczibányi Téri Kodály Iskola Gyermekkara haur abesbatza. Azaroaren 1ean, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan.

Antzerkia

Nosotras. Lastailaren 30ean, ostiralean, 22:00etan Irurtzungo kultur etxean. **El Bucle.**

Erdibana. Azaroaren 1ean, ostiralean, 22:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Txalo produkzioak.**



Itziarren semeak, Kaotikorekin, Kalerarekin eta Trikiarekin batera ariko dira larunbat gauen Irurtzunen.

Ipuin kontalaria

Ipuinak jo eta Musikak kontatu. Lastailaren 30ean, ostiralean, 18:30ean Ziordiko liburutegian. **Badut taldea.**

Lamiak harrapatzen. Lastailaren 30ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko

lortia kultur gunean. **Lur Usabiaga.**

Zinema

El padre. Lastailaren 30ean, ostiralean, 21:45ean eta azaroaren 1ean, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Irrational man. Lastailaren 30ean, ostiralean, 22:00etan eta azaroaren 1ean, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Del reves (inside out). Azaroaren 1ean, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Orogaine. Azaroaren 1ean, igandean, 9:00etan Etxarri Aranazko Larrañeta mendi taldea.

Bizikleta irteerak

San Lorenzo ermita. Azaroaren 1ean, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20ean Urbasako kanpinean. 49 km. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

IV. Arte Azoka. Azaroaren 8ra, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **ARTEbide.**

Bestelakoak

Gaztain mozte eguna. Lastailaren 31n,

larunbatean, 9:30ean Bakaikuko Maudubitatik abiatuta.

Gazte eguna. Lastailaren 31n, larunbatean, 12:30etik aurrera Irurtzunen. **IAGA.**

Deialdiak

Festen baloraziorako batzar irekia. Lastailaren 30ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Herri mugimendua.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 30ean, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Azaroaren 1ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Etxarriko Etxarri Gogoan batzordearen batzar irekia. Azaroaren 4an, astezkenean, 19:00etan Etxarri Aranazko udaletxean.

Etxarriko basogintza batzordearen batzar irekia. Azaroaren 5ean, ostegunetan, 19:00etan Etxarri Aranazko udaletxean.

Ostiralero SAIOA

9:30ean

Gaurko gaiak:

- Gizarte zerbitzuendako saria
- Hazitarako patatak Irañetan
- Sakanako Herri Lasterketa

Esataria: Maider

beleixe

107.3 FM

www.guaixe.eus-en ON LINE

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

>> Altsasu / Olatzagutia / Ziordia

Saria gizarte zerbitzuen mankomunitatearendako

Emakume ijito-portugaldarrendako elikadura eta kirolaren bidez osasuna zaintzeko eta gizarte erlazio positiboak garatzeko programa saritu dute

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kalitate Sariketako erabiltzaileei arreta mailako saria Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Iruñeko Sei elkarteak (Servicio Socioeducativo Intercultural) partekatu dute aurten. Nafarroako Gobernuak eta Tomas y Lydia Recari Garcia fundazioak ematen dituzte sari horiek eta aurten zortzigarren edizioa izan da. Erabiltzaileei arretan praktika onak txertatu dituzten erakundeen lana aitortu nahi du sariketak.

Burunda mendebaldeko Mankomunitatearen Zaindu ahal izateko gure burua zaintzen ikasten proiektua saritu dute. Emakume ijito-portugaldarrei zuzendutako egitasmo bat da, "gizarte kohesioaren zaindari eta bermatzaile" direlako. Informazio eta prestakuntza bidez emakumeek euren zaintzaz, erlazioez eta jardueraz iritzia izan eta erabakitzea izan dezatela da helburua. Azken batean, bizitza askatasun gehiagorekin kudeatzea. Horretarako, mankomunitateak higie eta bizimodu osasuntsuari buruzko (elikadura eta ariketa fisikoa) saioak antolatu dizkiete. Horrekin batera, gizarte erlazio positiboak buruzko tailerren eta igeriketa tailerren parte hartu dute.

Saria Nafarroako Jauregian egiten den ekitaldi batean banatuko dute, abenduan. Mankomunitateak 1.500 euro eskuratuko ditu.



Saria merezi duten protagonistak.

Saria izanen dute

Bakarretik komunitatera

Arantxa Erbiti eta Erkuden Imaz izan dira programa garatzen lagundu dutenak, "emakume ijito-portugaldarrak izan baitira programako protagonistak, garatu dutenak". Erbiti eta Imazekin batera osasun zerbitzuetakoak, immigrazio teknikaria, eurekin ari den psikologoa eta kiroldegiko langileak lagundu dute guztia aurrera ateratzen. Erbitik azaldu digunez, "kolektibo horretako emakumeak gizarteratzeko hasierako pausoak dira programaren bidez emandituztenak". Eta, funtsean, osasuna (elikadura eta kirola) eta elkarren arteko erlazioak landu dituztela argitu digute. Imazek esan digunez, "emakume bakarrekin hasi ginen lantzen irudia eta kirola; osasun etxearekin argaltzeko dieta bat hasi zuten. Pasiatzen hasi zen". Argaltzen hasi zena eta komunitateko gaitortzeko emakumeak konturatu ziren eta nola zen posible azaldu zioten.

Imazek gogoratzen duenez, "haiek beraiek antolatu ziren eta pasiatzen hasi ziren. Konturatu ginen haiek aldaketa baten, kiloak jais-tearen premia sumatzen zutela".

Horrek elikadura lantzeko aukera emanen ziela ikusi zuten Erbiti eta Imazek. "Zituzten beharren arabera baliabideak eskaini dizkiegu".

Programa

Biei esaten zieten: "guk badakigu jaten, baina zerbait dago erabat lodi gaudelako". Hori eragotzeko zer egin zitekeen galdetu zieten eta haiek botatako proposamenei erantzunez joan da programa eratzten. "agian gimnasioa, kirol pixka bat edo pasiatzen hasten bagara" esaten zutela gogoratu dute. "Zuek esan eta antolatzen saiatuko gara" erantzuten zieten. Bitartekari lana hartu zuten euren dako Erbiti eta Imazek: "zuek amestuetagu, ahal dugun neurrian, han egonen gara".

Lehen elikadurari buruzko hitzaldi bat antolatu zieten, "zer jaten eta nola prestatzen zuten jakiteko eta menu orekatuak nola egin zitzaketen azaltzeko". Horri pasioak egitearena lotu zioten. Hurrengo urratsa igerilekuan ikastaroa antolatzea izan zen. "Horrekin landu genituen: zer gauza hartu behar diren kontuan, zer materiala era-

man behar den, kiroldegiko arauak, higie arauak. Garbiketaren arloan kontuan izan behar diren hainbat gauza azken finean", zehaztu digu Erbitik.

Psikologoarekin eta immigrazio teknikariarekin egindako saioak oso politak izan zirela esan digu Erbitik. Gustuko gauzak zein zituzten eta zein ez azaldu behar izan zuten. Horrek haien arteko erlazioak modu positiboan bideratzeko lehen oinarriak jartzeko bidea eman zien. Osasun etxeko profesionalekin lortutakoa ere nabarmendu nahi izan dute. "Genuen ideiak proposatu dugun toki guztietan harrera oso ona izan du" azpimarratu du Erbitik. "Haiek ere euren arloan zailtasunak ikusten dituztelako. Denok indarrak batu ditugu. Dena erraztasuna izan da. Eta oso interesgarria".

Igeriketa ikastaroan 21 emakumek, 19 altsasuarrek eta 3 irurtzundarrek, parte hartu zuten. "Secretariado Gitanon lortutakoarekin harrituta gelditu ziren". Aurten adineko emakumeekin hitz egin dute, igeriketa ikastaroan izena ematera animatzeko. Lehen ikastaroa bukatu ondoren hiru emakume

bazkide egin ziren eta hurrekin joaten direla gaineratu dute.

Balorazioa

Programa pasa den ikasturtean abiarazi zuten eta hau hasiera besterik ez dela ziurtatu digu bikoteak. Ikasturte honetan segida emateko aurreko astean emakumeekin elkartu ziren teknikariak. Balorazioa egitean denak pozik zeudela esan digute. "Bestela etxea gobernatzen daude. Batzuk helduen eskolara joaten dira, beste batzuk jostera. Baina egun guztia etxean sartuta ematen dute, erabat aspertuta" esan digu Imazek. Programaren bidez burua, gorputza, ilusioa, "dena" mugiarazi nahi diete, "hasi mugitzen". Imazek ziurtatu duenez, "haiek konturatzen ari dira zerbait aldatu behar dutela". Eta Erbitik gaineratu du: "garrantzitsuena aldatu dezaketela jabetu direla da. Prozesu horretan daudela uste dut, sinesten dute". Bestalde, egin dituzten saio guztiak komunitateak eliza gisa erabiltzen duen lokalean izan dira. "Denok hara mugitu garelako, nik uste hobeki hartu gaituztela", esan du Erbitik.

Espazio berrietarako ateak zabaldu dizkiete, esaterako, kiroldegikoak. Esperientzia ona izatea nahi zuten eta, horregatik, arauak jarraitzeko indarra egin zuten. "Haien poza ikustekoa zen" gogoratu du Erbitik.

Segida

Jasotako aitortza "ardura gehiago" delako Imazek. "Orain, derrigorrez, segitu behar dugu". Programak mugagabe segituko du. Ikasturte berrian, gainera, gizonak batuko dira programara, "eta guk zer? galdeztzen zigtelako". Haien nahiak izanen dira, atzera ere, programazioaren ardatza. Baina emakumezkoekin eta gizonezkoekin talde ezberdinetan lan egindako dute. Bitartekariak dotenez, "ikasi dute beharra dagoela, osasun aldetik ona dela zaintzea". Helduekin segituko dute lanean, "horrela lortuko dugu umeak ere hobeki egotea. Azken finean, elikadurarena ere haiekin landuko dutelako".



Zoila Berastegi

astekoa

Duela 80 amama...

Bi munduk talka egiten dute.

Bi munduak iragana eta etorkizuna izan litezke; tradizioa eta modernismoa, agian; arbasoak eta ondorengoak, akaso; baserria eta hiria; produkzioa eta artea; ziurtasuna eta ausardia; esleipena eta askatasun indibiduala; gurasoak eta seme-ala-

bak ere bai, apika. Talka egin dezaketen mundu asko daude. Askotan herri berean, familia berean, etxe berean. Eta gehienetan, nahi baino maizago, gorputz berean.

Talka artean bizi gara. Arritmia batean. Zirtedo zart artean. Nirekin edo harekin. Txuria edo bel-

tza. Hemen edo han. Hau edo bestea. Bai edo ez. Orain edo inoiz ez. Eta talkek, nahi ala ez, aztarinak uzten dituzte. Batzuetan, tirta batekin sendatzeko moduko atzamarkak. Baina tentuz josi eta zaindu beharreko zauri sakinak bestetan.

Non jaio naiz? Noiz? Noren albo-

an? Nondik nator? Nora noa? Nor naiz?

Horiek dira talka eskarmentua hartuta erantzuten saiatzengaren galderak. Gure existentziaren mugak jarri nahian sarritan eta hautsi nahian beste askotan.

Eta munduek talka egiten jarraitzen duten honetan, emeki-eme-

ki, isil-isilik, sustraiak non dituen ondo baino hobeto dakien zuhaitzaren adar eta adaxketako hostoek gorantz, argirantz doaz. Agian oposizioa bera bere egiten du zuhaitzak. Eta preseski, hor gordetzen du bere sekreturik handiena. Izan ere, duela 80 amama neolitikoan geunden.

barrutik kanpora

Euskaldunak armairutik atera!

Euskararen alde egotea gauza ederra da, baina ederragoa euskararen alde EGITEA. Euskara ez da bihotzean gordeta edukitzeko zerbait, ez da sentimendu eta mugatu beharreko kontua. Euskara erabiltzeko da, irakurtzeko, mintzatzeko, abesteko, txutxumutxuak zabaltzeko... ikasteko, erakusteko, lan egiteko eta oro har, bizitzeko.

Bada ordua euskaldunok armairutik atera eta 24 orduz eta urtean 365 egunez, euskaldunak garen, euskaraz bizitzeko. Ezinezkoa irudituko zaizu, baina ohar zaitez, egiten duzuna baina askoz gehiago egin dezakezula. Frogatu nahi? Hilabete bat har dezagun geure burua neurtzeko eta abenduaren 3an, Euskararen Egunean, bizi gaitezen euskara

hutsez. Zaila izango da, baina ez ezinezkoa. "Berria" egunkaria irakur dezakezu, "Guaixe" ere bai, noski! Euskarazko irrati eta telebista ere baditugu! Euskaraz soilik mintzatzeko gara eta sor daitezkeen oztopoak gainditzeko euskaraz eta mantso errepika dezakegu, keinuak egin... erdararik ez! Eguneroko saiatzen naiz horretan, baina abenduaren 3an

zurekin batera lortu nahi dut. Euskararen harrotasun eguna izango da abenduaren 3a.

Egun horretan ez gara zu eta ni bakarrik aterako armairutik, ez. Twitterreko traola hauek erabiliko ditugu: #EuskarazBizi #EuskaldunEtaHarro #EgotetikEgitera; Gure esperientzia positibo eta ez hain positiboak facebooken elkarbanatuko ditugu; whatsapp

talde bat sortuko dugu armairutik aterako garen guztion artean (egun horretarako bakarrik izango dena). Izango duzu ekimen honen berri, baina bitartean hasi entrenatzen!

Euskararen alde egotetik, euskararen alde egitera!

Sakanako EHE

hara zer dien

Esker onak

Josefina Arregi Klinikako langileek artikuluak idazten ditugunean orokorrean Alzheimerren inguruko informazioa helarazteko izaten da, bai familiak eta ingurua informatzeko, orientatzeko eta gidatzeko batez ere. Beharrezko eta oinarritzko informazioa baldin bada ere, oraingo honetan idatzi edo artikulu honen helburua beste bat da. Lerro hauek gure esker ona adierazteko erabili nahiko genituzke, boluntarioei

gure eskerrik zintzoena helarazteko.

Azaroan lau urte beteko dira sakandar eta profesional talde batek Josefina Arregiren Lagunak Elkartea sortu zuenetik. Taldearen helburua, laguntza emateaz gain, 1995ean Felipe Lezeak sortutako proiektuari jarraipena emanen dion erantzukizuna hartzea izan zen.

Pertsona horiek guztiak klinika, paziente eta profesional guz-

tiendako egindako lan ona eskerretzeko hitzik ez dago. Beti proposamen berriekin, beti lanerako gogoz eta indarrez eta egindako guztia pazienteen onurarako -belarra moztea eta ingurua txukuntzea, mantentze lan orokorrak, egongelak txukundu, hainbat ekimen solidario antolatuz, adibidez-.

Gaur egun klinika ez legoke dagoen moduan zuen mugagabe ko laguntza gabe.

Mila esker guztioi, bereziki elkartearen ordezkaria den Patxi Goikoetxeari. Eskerrak Dantza-leku Sakana taldeari ere, Onddo Lasterketako ekimen solidarioetatik, baita Altsasuko Kirol Elkarteari ere, egindako ekintzetatik. Ezin ahaztu ere AFAN (Nafarroako Alzheimerreko gaixoen familiaren elkartea) elkarteko boluntarioek eguneroko Klinikako Eguneroko Zentrora etortzen diren harreran eta etxez etxeko lekual-

daketan egindako lana. Eta nola ez, astero gureganako prestutasuna eta adeitasuna, beti ere pertsona hauen egunerokotasunean bihotzetik eta irrifarra galdu gabe lagunduz egindako lanari.

Mila esker, eskermila guztiondako eta gure esaldietako baten zatia gogoratuz agurtzen gara: "oroitzaitz ez ahazten dutenaz", "ez pasogin, ez eta haietaz ahaztu ere".

Josefina Arregi Klinika

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitz Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso.

ZUZENTZAILEA: Patxi Flores

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikako Salburuordetza

>> Irañeta


Hazitarako patata irintarrak

Opposaren bidez azken bi urteetan emaitza onak eman dituzten probak egin dira eta Nafarroako Gobernuak Irañeta ekoizpen gune izendatu du, eta Sakana horretarako eskualde irekia

Edozeinek ezin du hazitarako den patata ekoiztu. Nafarroan hazitarako patata ekoizteaz Opposa entitate arduratzen da. Nafarroako Gobernuak hazitarako patata kontrolatu, ziurtatu eta haren ekoizpena 2006an arautu zuen. Foru Aginduak Nafarroan hazitarako patata ekoizteko baimena duten eskualdeak eta herriak jaso zituen eta han daude Pirinio aldea, Kodes aldea eta Izarbeibar aldea. Lastailaren 9az geroztik Irañetan erlandatu daitezke hazitarako patatak. Gainera, helburu horretarako Sakana "eremu irekia"

izendatu da.

Opposak eskatu zuen Irañetan hazitarako patatak ereiteko baimena izatea. Entitateko kudeatzaileak esan digunez, "Nafarroako eremu berrietan bestelako laborantzak proposatzea bereziki interesgarria da, eskualde horietan nekazaritzaren, ekonomiaren eta gizartearen garapen egokia lortzeko". Joan den urtean eta aurten Irañeta inguruan hazitarako patata ekoizteko inguru egokia dela ebaluatu eta emaitza onak jaso zituen Opposak. Horrek "lasaitua" ekarri die, izan ere Kodes eta Pirinio aldean kisteko nematodoak agertu dira, eta horregatik hazitarako patata ekoizteko lurzatiak mugatu dituzte eta, ondorioz, ekoizpena jaitsi baita.



Joseba eta Juan Ignazio Ollo Astiz anaiak Murginduetan.

Irañetako esperientzia

Zaldi eta ardi aziendarekin lan egiten dute Murginduetan Ganadera SCAn ollotarrek, Jose Ollo Azkona aitak eta Joseba eta Juan Ignazio Ollo Astiz anaiak. Soro berean beti gauza bera ereiteak lurra pobretu egiten du eta urtetik urtera aldatzeak eta txandakateak lurrari on egiten dio. Horren jakitun, ollotarrek patataren alde egin dute. "Urte askotan arto eta neguko belarra eroin dugu. Txandakate gehiago egitea beharrezkoa da". Sakanan beti eman duela badakitelako eta "patata egon den lurra hurrengo urtean uzta ona ematen duelako", patataren alde egin dute. Opposaren jardueraren berri aspald

di zuten Murginduetan eta pausoa ematea erabaki zuten. Entitateak ere Sakanarekiko interesa zuen, "ibarra, lur suabeagatik, patatarako ona delako". Patatak edozein lurretan hartzen du, baina harea itxura duen lurra hobekia da, urak behera lehenago egiten duelako. "Hemen patatak ematen du", aipatu digute, azken bi uztak gogoan.

Hitzarmena

Lurraren laginak laborategian ikeritu zituzten lehenik. Egokitasuna aztertu eta aurrera egin zuten. Opposaren jardueraren "kontrolatua" da, "soro handiak nahiago dituzte". Egokia zela ikusita, Opposaren hitzarmena egin zuten: sakan-darrek soroa utzi zieten hazitarako patata eroin zezaten. "Haiek

patatan adituak dira".

Ollotarrek lurra prestatu zieten eta Opposako langileek maiatzeko hiru garren astean eroin zuten pataten erdia. "Euria egin zuten eta beste erdia geroago egin zuten". Bi sorotan 9 hektarea guztira. Horretarako beharrezko makineria ekarri zuen entitateak. Murginduetarrak landare-osasunerako produktuak jaso eta haiek zabaltzeaz arduratu dira. Opposakoak ikuskatuta, jakina. Izan ere, hazitarako patata denez, txikia izan behar du eta gehiago ez hazteko produktu bat ematen diote landareari, "hura lehortu eta patata ongi egina gelditzeko". Duela hilabete inguru eman zuten tratamendu hori. Euren egitekoak duten makineriarekin egin dituzte.

Bilketa egina

Opposakoak pasa den astean iritsi ziren Maliko 17 laguneko koادرilarekin eta lau egunetan jaso zuten Sakanan landatutako uzta. Makinak patatak azalerazi eta langileek bildu zituzten. Lana larunbatean despeditu zuten Irañetan. Dagoeneko uzta Opposaren Noaingo biltegiaren dago. Hazitarako patatak direnez, tamaina txikikoak dira jaso direnak. Handiak sortu badira horiek kontsumorako bereizten ditu Opposak. Bi patata mota izan dira Irañetan jaso dituztenak. Erein zituztenean mota bakoitza alde batean eroin zuten eta zeinek bere identifikazio kartela zuten soroan. Gertu beste patata batzuk ez egotea

ere ona dela azaldu digute.

Kontsumorako patata ereiteaz galdetuta, makineriaz aparte hotz kamerak eta beste izatea eskatzen duela azaldu digute bi anaiak. "Ekoizpen hori, nik uste enpresa eta komertzialen esku dagoela" esan digu aitak, argituz, "egun salgai dagoen patata gehiena Frantziatik" heldu dela.

Uzta ona

Euren esperientziara bueltatuz, pasa den urtean 4 hektarea pasako soroa landu zuten ollotarrek Satrustegi aldean. Bi urtetan uzta ona izan da, "euria egin duelako". Heldu den urtean segitzea esperodute: "lurra hobetzearekin batera, gastuak estali eta pixka bat gehiago ateratzen dugu".

>> Irurtzun / Arakil

Gazteak euren egunerako prest

Larunbatean, 12:30etik aurrera, Irurtzunen

Irurtzun eta Arakilgo Gazte Asanbladak (IAGA) antolatuta II. Gazte Eguna ospatuko da Irurtzunen bihar. Bigarren edizioa bai Arakilgo ibarreko, bai Irurtzungo baita inguruko herrietako gazteen topaleku bihurtzeko asmoz antolatu dute, horretarako egitarau zabal prestatuz.

IAGAREN lanaren fruitua da biharko ospakizuna. Bere kideek adierazi dutenez, "egunetik egunera bizitzako arlo guztietan argi geratzen da gazteen egoera larria dela. Langabeziak markatzen du egunerokotasun hau, honek suposatzen duen bizi baldintzapen guztiekin". Aukera faltagatik Arakil aldetik kanpora gazte askok ate-



Irurtzun eta Arakilgo gazte egunean parte hartzeko deia egin dute. UTZITAKOIA

ra behar izan dutela gogorarazi dute IAGAtik. "Gazteak etorkizuna direla esan ohi da, baina baita oraina ere. Horregatik, gazteek

gaur egungo gizartearen paper protagonista bat behar dutela iritzi du IAGAK eta horretarako ari da lanean, gazteria engaiatuz".

Lekukoa

Dozena bat urtez antolatu zen Irurtzunen Pikurock jaialdia domu santu eguneko asteburuan.

Egitaraua

>> **Lastailak 30, ostirala**

21:00etan Afaria Larrazpin. Ondoren, Tximeleta dokumentala.

>> **Lastailak 31, larunbata**

12:30ean Txupinazoa eta ondoren triki-poteoa.

14:00etan Bazkaria.

15:00etan Euskarazko txisteen lehiaketa. ITB.

16:30ean Mus eta partxis txapelketak eta photocall.

18:00etan Txapel jaurtiketa.

18:30ean Herriak Libre kalejira

Indarrok elektrotzarangarekin.

22:30ean Kontzertuak frontoian: Itziarren Semeak, Kaotiko, Kalera eta Triki-zio.

Joan den urtean hura bertan behera geldituko zela zirudienean IAGAKoek lekukoa hartu eta Gazte Eguna antolatu zuten. 2014ko maiatzean hasi ziren Arakilgo eta Irurtzungo gazteak elkartzen, "gazte dinamika finko bat sortu eta gazteen buruhauste nagusiei erantzuna emateko intentzioaz".

» Bakaiku

Gaztaina sasoi

Laugarren urtez segituan Gaztain Mozte eguna ospatuko da Bakaikun. Bihar, hasteko, beheko basoan, Mandubitan, jarri dute hitzordua 9:30ean. Han elkartzen direnek gaztainondo berri eta zaharren artean ibilbide gidatua izanen dute. Hura despeditzean auzatea izanen da eta Bernoako galtzadaren inguruko azalpenak jasoko dituzte. Basokoa despeditu eta gero, Bakarrekotxea elkartean gaztainen ereite tailerra egingen da. Joan den urtean hartu eta ernamuinduta dauden gaztainak berlandatzeko eramatea eskatu dute. Elkarte parean dagoen Kotxo tabernan, azkenik, 13:00etatik

aurrera udazkeneko pintxoak eta gaztaina moztearen inguruko erakusketa ikusgai izanen da.

Aurreko Gaztain Egunean bakaikuarren artean herriko gaztainondoan egorak kezka sortu zuen. Natura-ondare hori mantentzeko lantalde bat sortu zen eta azken bi urteetan, besteak beste, honakoak egin ditu: dauden gaztainondoan ingurua garbitu eta haiek markatu, gaztainondoei buruzko hitzaldia eta tailerra antolatu eta, udaberrian, gaztainondo berriak landatzea.

Garrantzia

Garai batean Bakaikuko familia



Adin guztietako bakaikuarrak elkartzen dira Gaztain Mozte egunean.

bakoitzak hainbat gaztainondo zituen eta beharrezko elikagaia zen. Bando bidez haiek hartzeko eguna iragartzen zuten. Basotik abere guztiak ateratzen zituzten

eta basoazaintzen biguarda jartzen zituzten. Eguna iritsita, ezkilak jotzen zituztenean gaztainak hartzera abiatzen ziren herritik. 1960ko hamarkadan galdu zen ohitura.

» Altsasu

Pozoiaren ondoren

Pozoitutako haragi bolak agertu ziren eremuak garbi daude

Altsasuar batek opatu zuen azken haragi bola pozoitua irailaren 19an izan zen, Amaia kalearen atzeko aldean. Aste bat lehenago, irailaren 12an eta 13an, Otadiko Kristo Deuna eta San Joan ermiten inguruan, Idertzagain, Bakea, Nafarroa eta Altzania eta Amaia kaleen artean agertu ziren. Xehetutako haragi bola haiek baratzetan bareak eta barraskiloak hiltzeko erabiltzen den pozoia zuten. Animalien deigarriak ziren eta hura janda lau txakur hil ziren. Foruzaingoak bost salaketa jaso zituen. Pozoia agertu zen eremuetan animaliarik ez sartzeko eskatuz Udaltzaingoak harrak zabaldu zituen. Bestalde, Guardia Civilaren Sepronako agenteak lastailaren 6an eta 7an pozoitutako haragi bolak agertu ziren inguruak aztertu zituzten eta ez zuten bola gehiago aurkitu. Aurreneko bolak agertu eta ia hilabetera etorri zirenez, pozoia euriarekin egun batzutan deseginen zela eta horrek ezer aurkitzea zailduko zuela susmatzen dute txakur jabeek. Txakurren pozoitzeak eta haietako lauren heriotzak berehalako erantzuna izan zuen Altsasun. Ehunka pertsonen manifestazioa egin zuten irailaren 13an. Gerora Huellas de Altsasu taldea sortu zuten eta irailaren 26an jendetsua izan zen manifestazioa antolatu zuten. Animalien zaleen taldeak ez du segidarik izan.

» Irurtzun



Mendizale talde handia elkartu zen euskara praktikatzeko. AIZPEA

Euskaraz bidean

Halaxe aritu ziren igandean Euskaraz bizi nahi dut egunean elkartu ziren 60 lagunak. Eguraldiaz, mendiaz eta euskaraz disfrutatzeko hitzordua zen. Taldea bitan banatu zen. Gurasoak eta txikiak Plazaolako ibilbidetik Aizkorbera

igo ziren han Itxesiko bidea hartu eta Irurtzunera bueltatzeko. Animu handiagoa pilatu zuten Gaztelura igo ziren 11 mendizaleak. Zeinek bere ibilbidea egin ondoren, plazan, otamenean elkartu ziren.

» Arakil

Arakildarrak Azpeitian

Larunbatean autobus bat irten zen Arakildik Azpeitiara. Goizean Trenaren museoa bisitatu zuten eta lurrin-makinak tiratutako trenaren txangoa egin zuten. Eguerdian Loiolara joan ziren, han baz-

kaltzeko asmoz. Arratsalde librea zuten, batzuk mahainguruan gelditu ziren kartetan. Nahi izan zuenak Loiola ezagutzeko aukera izan zuen: santutegia eta Iñaxioren museoa besteak beste.



Arakildarrak lurrin makinak tiratutako trenaren ondoan. UTZITAKOIA

Halloween festa Zumalakarregin

Zumalakarregi plazak Halloween festa hartuko du gaur. 19:00etatik aurrera haurrendako "ginkana beldurgarria" izanen da. Zapien, kalabaza pasan, momia biltzean eta elur jolasetan aritzeko aukera izanen da. Dantzarako eta koreografiak egiteko musika ere jarriko diete. Mozorrotzen diren haur eta helduendakosaria izanen da. Pintxo jatea ere izanen da eta gauerdian faroltxo hegalariek askatuko dituzte, desiobana eskatu ondoren. Intxostiako festa batzordeak antolatutako festa, JJ, Akelarre eta Txalaparta tabernen laguntzarekin.

Xurruten ondo astea

Heldu den ostegunetik domekara, Altsasuko Alde Zaharreko tabernen elkarteak, Xurrutek, ondo astea prestatu du. Arkangoa, Urtzi, Gautxori, Xume, Lezea eta Koxka tabernetatik pasatzen diren bezeroek ondoekin egindako pintxo goxoak dastatzeko aukera izanen dute. Dastatzearekin batera sariak irabazteko aukera ere izanen dute: Sant Sadurniko (Bartzelona) Freixenet upategira bi pertsonarendako bisita, hotelabarne, edo elkarteko taberna bakoitzean bi pertsonarendako afaria.

» Urdiain



Domekan ederki pasa zuten urdiaindarrek Albaolan.

Urdiaindarrek Albaolan

Bi autobus bete urdiaindar Pasaiarako joan-etorria egin zuten domekan. Adin guztietako 114 urdiaindarrek Pasaiatik Albaola itsas faktoriara itsasontziz iritsi ziren. XVI. mendeko San Juan baleontziaren errepika egiten ari diren ontziola hiru

taldetan banatuta bisitatu zuten. Pasai Donibanen bazkaldu ondoren herria ezagutu eta 18:00etan, pozik, herrirako buelta hartu zuten. Udalak kudeatu zuen bidaia, baina festetako bazkarian ateratako diruarekin finantzatu zen guztia.

» Ziordia

Baleontzira bisitan

Albaolan egiten ari diren XVI. mendeko baleontziaren eraikuntza lanak zertan diren ezagutu zuten ziordiarrek larunbatean. Hirutan hartu behar izan zuten itsasontzia eta, bide batez, ia marinel titulua

kasik atera zuten. Bidaiak gehiagorako eman zien ere, Lucio Urtubia eta Amets Arzallusekin topo egin baitzuten ziordiarrek. Larunbatean bertan Albaolan etxarriar talde bat izan zen.



SAKANA

Euskaraz barra-barra

Hala aritzen dira Mintzakide taldeak. Zortzi daude eta, oraindik, izena eman daiteke

Mintzakide programakotaldeak lastailan elkartzen hasi dira. Taldetxikiak dira, astean behin ordu batez euskaraz hitz egitera elkartzen direnak. Kideetako batek euskaraz jarri ederra du eta besteek ez hainbeste,

hizkuntza ikasten ari baitira edo gutxi praktikatuta herdoildu egin zaielako. Ordu beteko saio horietako helburua giro normal batean, euskaltegitik kanpo, euskaraz hitz egitea da. Gehien dakiena ez da zuzenketak egiten aritzen, gainontzeko mintzakideen hitz-jarioa handitzea baita bere helburua.

Izen ematea

Sakana zortzi talde sortu dira dagoeneko, baina oraindik ere izena eman daiteke. 600 482 024 telefonora hots eginez, sakana_mintza@aek.org e-postara idatziz edo Itsasi euskaltegira joz (Altsasuko Gartxia Ximenez kalea, 46).



Ziordiko mintzakideak merendua eta guzti izan zuten ikasturte hasieran.

Mintzakide taldeak			
Herria	Tokia	Eguna	Ordua
Iruztzun	Iratxo elkartea	Astelehena	19:00etatik 20:00etara
	Pikuxar	Ostirala	17:15etik 18:15era
	Gurasolagun txangoa	Hilean behin, igandez	Goizean
Etxarri	Xapatero taberna	Ostirala	15:30etik 16:30era
	Koxka taberna	Osteguna	17:00etatik 18:00etara
Altsasu	Kaixo taberna	Ostirala	9:15etik 10:15era
	Liburutegia	Asteartea	16:00etatik 17:00etara
Ziordia	Tabernan	Asteazkena	18:30etik 19:30era

Altsasu / Ergoiena

Udazkenean, Gozamenez

Gozamenez programak sexualitatearen ikuspegi positiboa, errespetuzkoa, plurala eta aberasgarria eskaini nahi die gazteei. Haren bidez, gazteen artean sexualitateari buruzko hausnarketa eta arlo ezberdinen inguruko eztabaida sustatu nahi da eta publikoak eta ohikoak diren eremuetan sexualitatearen presentzia bultzatu nahi da.

Udazkeneko programazioa herenegun abiatu zen Vaiven produccionen *Lotsa gabe* antzezlanarekin. Iortia kultur gunean elkartu ziren



Iortian hasi zen aurtengo Gozamenez kanpaina. ARTXIBOA

Programa			
Herria	Eguna	Ordua	Ekitaldia
Altsasu	Azaroak 9, 16, 23	17:30	10 ordu sexuaz sexualitate ikastaroa
	Azaroak 11	19:00	II. Gozamenez lehiaketako film laburrak
	Azaroak 12	19:00	Zinegoak jaialdiko film laburrak
	Azaroak 13	21:45	X Confessions, film laburrak
	Azaroak 15	20:00	X Confessions, film laburrak
Lizarraga	Azaroak 28	18:00-20:00	Emozio-inteligentzia tailerra.

Sakana LH institutuko eta Aralarako Mikel Donea institutuko eta bi ikastoletako DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak. Agertokian, pentsatu, sentitu eta gozatu nahi duten neska-mutilak ikusi zituzten. Sexua euren buruan, bihotzean eta gorputzean indarrez sartu da. Gutxi dakite baina asko sentitzen dute. Euren beldurrak, pozak, frustrazioak eta emozioak ozen bota zituzten.

HIESA, homosexualitatea, maitasuna, lotsa, konplexuak, antisorgailuak, komunikazioa eta beste gai batzuk ukitu zituzten, umorez, hainbat gai eta egoera dramatiko arintzeko tresna ezin hobea baita.

Programazioak I. Altsasuko Gozamenez zinema zikloarekin eta Lizarragan ergoendarrendako eginen den tailerrarekin izanen du segida.

SAKANA

Urteko bisita kanposantuetara

Hildakoak gogoan, igandeko Domu Santu egunerako kanposantuek garbitzeko eta loreak prestatzeko egunak dira hauek

Azken egunotan mugimendu handia dago lore denda eta azoketan. Baita baratzeetan ere. Hilarriak lantzen dituzten komertzio eta artisauendako ere egun mugituak dira hauek. Izan ere, igandean dugu Domu Santu edo Santu Guztien Eguna, hildakoak oroitu eta

kanposantuetara joateko eguna, eta egun horretarako lorerik politenak eskaini nahi dizkiegu joan direnei. Krisantemoak, arrosak, tulipanak, margaritak... mota guztietako loreekin apainduko dira hilobi eta hilarriak, eskaintza zabala baita. Jakina, lehenago Sakanako hilarriak txukun jartzeko lan handia egin da: bidexkak garbitu, belar gaiztoak kendu,

hilarriak jarri eta garbitu... iganderako urtean barna nahiko triste egoten diren kanposantuek garbitu eta kolorez betetzeko.

Kanposantuetara bisitak izaten dira ohikoenak, baina ez da ahaztu behar askok euren senitarteko eta lagunengatik txoko ezberdinetan aieratzen dituztela eta txoko horietara doazela euren senide, lagun eta maiteak gogoratze-



ra. Hortaz, edozein izkin, txoko eta agertu egunotan. Joandakoen parajeetan lore sortak ahal dira omenez.

TXIKITXIKO
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08
Ferialekú 2 · ALTSASU

ESKAITZA
AUKERA ANITZEKO FUNTSEN ASEGURUA

Aukera ausarta
Neurrizko aukera
Aukera zentzuduna

MAPFRE
Tu aseguradora global de confianza

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
948 563 354 · San Juan 48 · ALTSASU · jimazpr@mapfre.com

Ogiaren artisauak
PORTUKO okindegia

ETXARRIARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153

» Arruazu

Askapenaren kontrako auzia bukatzeaz

Astehenean izanen da azken saioa. Fiskaltzak eta akusazioek espetxe zigor eskaerei eta erakundearen legez kanporatzeari eusten diete

Askapenako bost kideren kontrako epaiketak bigarrenastea bete du Espainiako Auzitegi Nazionalan. Astehenean bukatuko da Aritz Ganboa De Migel eta bere kideen kontrako epaiketa. Pedro Marti-

nez Torrijos fiskalak Askapena "ETAren mendeko egitura" dela uste du eta 6 urteko espetxe zigor eskaerari eta erakunde internazionalista legez kanpo uzteko eskaerari eusten dio. Baina Askapeña, Elkar Truke, Herriak Aske. eta Herriak Aske legez kanpo uzteko eskaera baztertu du. AVT eta Dignidad y Justicia herri akusazioek,

bestalde, 10 eta 7 urteko espetxe zigorrako eskaerei eusten diote. Defentsak guztien absoltzioa eskatu du.

Defentsak deitutako lekukoek artean Jesus Mari Mendinueta Arbizuko alkate izandakoa izan zen auzitegian deklaratu. Arbizu eta Palestinako Marda herrien arteko senidetzeari buruzko argibideak eman zituen Mendinueta.

gertutik >>

Aritz Ganboa de Migel

Askapenako kide auzipetua

Epaiketara internazionalismoaren eta zuen militantziaren defentsa egitera joanen zinetela aurreratu zenuten. Nola egin duzue?

Epaiketara internazionalismoaren eta gure militantziaren defentsa egin dugu hori zelako estatuak auzitegiaren bidez kriminalizatu nahi zuena. Epaiketara sartu bezain pronto eta lehen egunetik egin duguna, irudikatu dena. Gu akusatzen zitzaigun horretaz harro gaudela esan dugu epaitegian. Akusazioek guri eta gure lekukoek gure ekimen politikoei buruzko galderak egin dizkiete. Uste dut haiek ere sorpresa pixka batekin hartu dute (...) Behin eta berriz, beraien akusazioak, interpretazioak eta galderak maila politikoak kokatzen zituzten eta, beraz, erantzunak, behin eta berriz, maila politikoan ematen ziren. Epaiketa politiko batean egon gara hain zuzen ere.

Eta horrek zer esan nahi du?

Niri erantzutea tokatu zaidan akusazioetako bat izan da ia brigadak antolatzen genituen. Jaki-na antolatzen genituela. Eta zer egiten zen? Bai. Eta orduan brigaden bidez Askapenak aldarrikatu duen lan politikoa adierazi dugu. (...) Egun hauetan entzun dena da: zein den Askapenaren ekimena; zein den Askapenaren planteamendu politikoa eta zein izan den Askapenaren lana planteamendu politiko horiekin aurrera egiteko. Gaur (atzogatik), gainera, akusazio batek, AVTK, esan digu epaiketa hau klabe politikoan ematen ari bada dela nolabait onartu behar delako terrorismoaren aitzakipean herritarren askatasunak gero eta murriztagoak izan behar direla. Eta, beraz, askatasun politikoak eta askatasun demokratikoak terrorismoaren aitzakipean murriztuak izan daiteke. Beti ere, ulertuta, eta haien ikuspegitik gainera, planteamendu politiko batzuk ez direla zilegiak eta hori dela epaitzen ari dena. (...)

Akusazioen zigor eskaeretan aldaketarik egon da?

Aldaketa sinpleak egin dituzte hiruak. Militantziaren kriminalizazioa dago eta militante batzuk kar-

tzelara eraman nahi gaituzte. Eskera hori bere horretan mantendu dute. Herritar gisa antolakuntzarako ditugun eskubideak ere kriminalizatu nahi dituzte eta Askapena legez kanpo uzteko eskaerarekin bere horretan segitzen dute. (...) Kasu honetan, Askapeña, Elkar Truke eta Herriak Aske elkarteek kontrako akusazioak ezin izan dituzte mantendu haiek bete behar zituzten gutxienekoak ere bete ez dituztelako. Elkarteek ordezkari legalak ez zeuden deituak. (...)

Zigor eskaerak murriztu dituzte, keinuren bat egin nahian?

Ez. Hemen ez dago keinurik. Eta halako prozeduren ondoren norbaitek uste badu espainiar estatuaren aldetik keinuren bat ikusiko dugula, oker dabil. Ez dago keinurik. Beste gauza bat da gu euskal herritar bezala, herri bezala egiten ditugun mugimenduek nola behartu ditzaketen halako injustiziak eta muntaiak erortzen. Zentzu horretan zeregina dagoela uste dugu. (...)

Larunbatean Madrilen zuei babesa azaltzeko manifestazioa deituta dago, ezta?

Hori da, 18:00etan. Orain arte ibilbide bat egin da eta elkartasun asko jaso dugu. (...) Madrilgo Libre eta Euskal Herriaren Lagunek manifestazioa deitu dute Euskal Herriaren kontrako epaiketa politikoaren kontra. Bai guk, bai Eleak eta Libre dinamikek deialdiari heldu diogu. Baita eskubide zibil eta politikoaren kontrako auzietan jazarpen hau pairatzen duten beste auzipetuak ere. Sakanan, esaterako, Joxe Aldasoro edo Patxi Arratibel. Egoera berean daude. Manifestaziora joateko Sakanatik autobusa aterako da.

Astehenean azken saioa.

(...) Hortik aurrera besterik egin

behar bada, bada onartzea gure injustizia hauen aurrean ezin dugula men egin eta injustizia hauek salatzearekin batera, desobedientziaren jarrera ere gure egin beharko dugula. Ez gu auzipetu gisa, baizik herri gisa. Guk argi eta garbi utzi nahi dugu lanerako bide asko dagoela eta euskal herritar gisa Euskal Herriatik ez datozen horrelako mandatuek ez ditugula aintzat hartuko. Beraz, laranja den bideari ekin beharko diogu. Aurrera egin beharko dugu. Ez gu bakarrik. Uste dugu herri gisa erantzun behar dela.

Normalena absoltzioa beharko luke?

Normaltasunak askotan ez dauka zerikusirik izan beharko lukeenarekin. Oso ohikoa eta oso normala da horrelako injustiziak ematea gure herriaren kontra. Baina ezin ditugu ontzat eman. Absoltzioa ez den beste edozein epairik ez dugu onartuko.

Internazionalismoak jarraituko duelako?

(...) Kolpea eman zionetik Askapenak eta euskal jendarteak erakutsi dute euskal internazionalismoak aurrera egin duela, nahiz eta halako kolpe politiko eta juridiko bat jasan. Jokean dagoena ez da jarraituko dugun edo ez, jarraituko dugula argi eta garbi baitago. Herri honek behar dituen gutxieneko askatasun eta oinarritzko askatasun demokratikoak errespetatu ezean ez dagoela aurrera egiterik. Beraz, askatasun demokratiko horiek eraiki behar ditugu. Gure herriaren gehiengoak nahi dituen bideak dira bete behar direnak. Beraz, ikuspegi demokratiko batetik herriaren mandatuari erantzun behar diogu. Ez espainiar estatuaren mandatuari.

Osorik: www.guaixe.eus

» Altsasu



Altsasuko peñetakoak txupinazoan.

Festen balorazioa egitera deitu du herri mugimenduak

Ostiralean, 19:00etan, Gure Etxea eraikinean

Festen balorazioa egiteko batzar irekia deitu du herri mugimenduak, "zertxobait berandu bada ere". Herri mugimenduko kideek "festen inguruko balorazio bat egitea ezinbestekoa" dela uste dute. Euren euren egin dute baina "altsasuar guztien iritzia jakitea beharrezkoa" jo dute; festak herritik herriarendako direla irizita.

Horregatik, ostiraleko batzarrera joateko deia egin dute Altsasuko peñek, gazte asanbladak, Ospa mugimenduak, Ernaik, Bilgune Feministak, Herriak Libre, presoen herritarrearen aldeko mugimenduak eta Euskal Herrian Euskarazek.

»



Koldo Saratxagaz idatzi du Gorospek.

Gorospe Saratxagaz

Pedro Gorospe Lafuente kazetari altsasuarrak *El inconformismo de Koldo Saratxaga, semilla del éxito de Irizar Group y Ner Group* liburua idatzi du (Cyan Proyectos Editoriales, 2015). Saratxagaz NER (Nuevo Estilo de Relaciones) izeneko kudeaketa filosofia berria asmatu eta indarrean jarri zuen 90eko hamarkadan. Kudeaketa filosofia hori pertsonetan oinarrituta dago, elkar banatzean, hierarkia eskasarekin; lidergoa konpromisotik, konfiantzatik eta gardentasunetik bideratzen da. Korporazio askok bere egin dituzte Saratxagaren ideiak, beti ere, langileen gehiengoaren aurretiko babesa izanda. Liburuan Gorospek Saratxagaren eta Ner taldearen historia kontatzen du. Horretarako, protagonisten oroitzapenak jaso ditu. Kontaera biziarekin lidergo eredu nola zabalitzen den azaldu du altsasuarrak.

» Ziordia

Arimen gauerako hitzordua

Garai batean Domine Santu egunaren bezperan arbiak edo erremolatxak hartu, hustu, zuloak egin eta barruan kandela sartuta herrian barna ibiltzen ziren. Ohitura berreskuratzeko erremolatxak husteko tailerra antolatu dute Ziordian. Iluntzean elkartuko dira, bakoitzak bere erremolatxa prestatuko du eta piztutako kandelarekin herrian barna ibiliko dira. Ibilbidea despeditu ondoren txokolate beroa dastatzeko aukera izanen dute.

» SAKANA

EGA prestatzeko ikastaroa

Bihartik aurrera, larunbatero, 9:30etik 13:30era bitartean, Itsasi euskaltegiak EGA prestatzeko klaseak hartuko ditu. EGA atera eta probak behar bezala prestatu nahi dutenek oraindik ere izena emateko aukera dute. Izena emateko, edo informazio eskatzeko, AEK Altsasuko Gartzia Ximeñez kalearen 46. zenbakian duen euskaltegitik pasa daiteke, edo 948 468 258 telefonora hots egin dezakete.

»

Podemos-Ahal Dugu hauteskundeetara aurkezteko sinadurak biltzen

Abenduaren 20ko hauteskunde orokorretan estreinako aurkeztuko da Podemos-Ahal Dugu. Hauteskunde lehian aritu ahal izateko alderdiak probintzia bakoitzeko eroldaren %0,1aren babesa jaso beharra du. Podemos Altsasu Ahal Dugu zirkulitik argitu dutenez, sinadura ematek ez du esan nahi gero alderdiari botoa eman behar zaionik, baizik eta hauteskundeetan alderdi berri bat parte hartzea babesten dela. Altsasun, asteartean, ordu bakar batean 50 sinadura jaso zituzten. Alderdiari laguntza hori eman nahi diotenen Altsasuko zirkuluarekin harremanetan jartzea besterik ez dute.

» Altsasu

Sute txikia Sunsundegin

Disolbatzaile bidoi batzuek su hartu ondoren piztu zen sutea eta badaezpada lantegia hustu zuten astehenean, langileak toxikatu ez zitezen, ke handia sortu baitzen. 6:30 aldera piztu zen su eta bidoiak zeuden eremuari besterik ez zion eragin. Altsasuko parkeko suhiltzaileek berehala itzali zuten su. Ez zen aparteko kalterik sortu. Baina, zer gerta ere, Iruñeko eta Aguraingo suhiltzaileak jakinaren ganean jarri zituzten. Lantegia garbitu eta aireztatu ondoren ohiko jardunera bueltatu zen. Foruzaingoak ikertu zuen ez beharra.

» Etxarri Aranatz

Gaztetxokoa, martxa ederrean

12 eta 16 urte bitarteko gazteendako gunea Maixuen etxe zaharreko beheko solairuan dago, ikastola zaharreko patioetik sartuta. Larunbatero eta igandero, 17:30etik 21:30era, dago zabalik

Dagoeneko zabalik dago Gaztetxokoa Etxarri Aranatzen. Ateak zabaldu dituen asteburuetan 40 bat neska-mutiko elkartu dira han. Eurak izan dira erabiltzen duten gunea txukundu eta alaitzeaz arduratu direnak. Iker Uribe-Etxeberriak gidatutako graffitti tailerra izan dute horretarako laguntza. Hezitzaile gazte batek du egitasmoaren ardura, eta tarteka taillerak eta ekimen adostuak eginen dira. Gazte etxarriarrei handik pasa eta izena emateko gonbitea luzatu diete.

Eneka Maiz Ulaiar alkateak azaldu digunez, "aspaldiko nahari helduz, aurtengo irailean udalak, Mugaipe enpresa eta Oinarrizko Zerbitzu Sozialekin batera, Gaz-

tetxokoa antolatu du herrian". Maizek azaldu digunez, "esperientzia pilotua da, non autogestioa landu nahi da: lankidetzaz, auto-eraketa, batzargintza, kulturagintza, euskara, gaztetxoei loturiko gaiak..."

Pausuak

Ikasturte hasieran Etxarriko 12 eta 16 urte bitarteko 96 gazteek inkestana jaso zuten. Gaztetxokoa beharra sumatzen zuten, halako egoitza balego zer egitea gustatuko litzaikeen, parte hartzeko prest leudekeen, irekiera egun eta toki egokienak aipatzea eta beste-lako proposamenak ematea eskatu zitzaizkien gazteei. 77 erantzun jaso ziren eta gaztetxoen artean Gaztetxokoak babes zabala zuela ikusi zuen udalak.

Interesatuekin irailaren 25ean eta lastailaren 10ean batzarrak egin ziren. Bestalde, udalak lastai-



Graffitti tailerraren bidez Gaztetxokoa nahi eran txukundu dute gaztetxoek. ETXARRI ARANAZKO UDALA

laren 8an gazteen gurasoak informazio bilera batera hots egin zituen. 30 bat izan ziren agertu zire-

nak. Aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzeko espazioaren nondik norakoak azaldu zituen udalak.

Bilerak gurasoen ekarpenak eta oniritzia jasotzeko ere balio izan zuen.

SAKANA

SEE: "lehiakorrak izateko zuntz optikoa behar dugu Sakanan"

Sakanako Enpresarien Elkarteak (SEE) zuntz optikoa jartzeko eskatu dio Administrazioari

Komunikazioen kalitatea eta azkartasuna funtsezkoa da enpresen lehiakortasunerako. Hori dio Sakanako Enpresarien Elkarteak (SEE), eta hori lortzeko Sakanan zuntz optikoa ezartzearen alde egin du Sakanako enpresariak biltzen dituen elkarteak. "Lehiakortasunerako komunikazioen kalitatea faktore funtsezkoenetako bat da gaur egun. Zuntz optikoa abantaila handiagokatu dituzte kobrezko kablearen bidezko konexioarekin alderatuta. Horregatik, garrantzitsua jotzen dugu Sakanan telekomunikazioen multizerbitzu garraioaren sarea sortzea, zuntz-optikoaren bidezkoa, aldi berean hainbat datuen transmisioa egiteko gaitasun handiagoa izango duena, azkarragoa izango dena, energia gastu gutxiagoa izango duena eta beste bide tradizionalen ondoan segurtasun gehiago eskainiko duena" adierazi du SEE-k. Elkartetik gaineratzen denez, Nafarroako Foru Komunitatean zuntz optikoa FTTH metodologiaren bidez ezarri dute, 100-300 Mbps abiadura artean, zuntz optikoa etxeetara ino eramanez. Baina zuntz ezarpen horiek Iruñea eta Iruñerrian ezarri dira batez ere, eta egun Tuteran inguruan ari dira jartzen. Lizarran, Aiegín, Villatuertan eta Tafalla eta Erriberri zuntz optikoa berehala jartzekoak dira ere. "Zuntz optikoaren teknologia Nafarroako hainbat eremutan jartzen ari dira baina Sakanako teknologia berri horretatik kanpo dago, epe laburrean behintzat" salatu du SEE-k. +www.guaixe.eus

SAKANA

ReciclApp-BirziklApp, hondakinei buruzko zalantzak argitzeko aplikazioa

Telefono mugikorretarako aplikazio berriak hondakinak errazago birziklatzeko argibideak ematen ditu

Nafarroako Gobernuak eta Sakanako Mankomunitateak BirziklApp (euskaraz) eta ReciclApp (gaztelaniaz) aplikazioa aurkeztu zuten herenegun. Tresnaren xedea da herritarren zalantzak argitzea, hondakinak nora bota behar diren erraztea, eta mankomunitateen eta herritarren arteko komunikazio ildoak zabaltzea. Aplikazioa Android sistema eragilerako eta Iphoneetarako garatu da.

ReciclApp-BirziklApp aplikazioak egiteko Ecoembes enpresak urtero egiten duen biztanleriaren ohitura eta jarrerari buruzko azterlanen oinarritu dira. Han nafarrekin hondakinaren bilketaren inguruan ditugun zalantzak jaso dira. Eta horretan oinarrituta aplikazioa saiatzen da argitzen zer hon-

dakin bota behar den edukiontzi bakoitzera, aukera ematen du ekipamendu berezi batzuk non kokaturik dauden jakiteko, hala nola garbiguneak, olio, pila edo arropa edukiontziak, edota mankomunitateak eskaintzen

dituen beste zerbitzu batzuk. Gainera, herritarrei bere mankomunitatearekin harremanetan jartzeko aukera ematen die, izan daitezkeen gorabeherak moldatze aldera. Aldi bere-

an, hondakinak nora eramaten diren azaltzen du, hondakinaren birziklapen prozesua ikus-entzunezkoen bidez erakutsiz. Nafarroako herri bakoitzera moldatua dago.

Sakanako hondakinak

Sakanako Mankomunitateko Hondakinaren Zerbitzuak jakinarazi duenez, beira-ontzien hondakinei dagokienez, joan den urtean 32,52 kilo birziklatu ziren biztanleko; hau da, 2.007.420 botila fabrikatze-ko adina, 98 biztanleko. Kartoizko eta paperezko ontziei dagokienez, 48,88 kilo; behar adina kartoi eta paper berreskuratu da 10.060 zuhaitz moztea galarazteko. Bestalde, mankomunitateko biztanle bakoitzak batez beste 24,31 kilo bota zituen ontzi arinetara. Horrek 10,4 tona CO2 isurtzea eragotzi du. TEEHei edo elektratresna txikiei dagokienez, 3,13 kilo bildu ziren biztanleko.



Lizarragabengoa

Kontzejuak hilerrirako bidea konponduko du

Lizarragabengoako Kontzejuak aurtengorako 7.444,07 euroko aurrekontua du. Joan den urteko eta aurtengo aurrekontuetako diru-sail bana hilerrirako bidea konponduko bideratu du, 2.500 euro inguru. Aurrekontu horrekin herri erdigunetik 100 bat metrora dagoen hilerria daraman bidea konponduko du kontzejuak.

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Asteleheneetik ostiralera
Eguneko menua 8,25€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

Zatoz gure ardotezia ezagutzera!

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Geltoki auzoa 11 • Altsasu
948 467 317 • 696 979 279 • hijosdegoikoetxea@yahoo.es




GRUPO TANATORIO

IRACHE


TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com




Jaione Anso Eguren



Elkarrekin bizitako mementuak ez ditugu sekula ahaztuko. Betirako gure bihotzean.


Bakaikuko lagunak



Jaione Anso Eguren

Zurekin bizitakoa ez dugu ahaztuko. Eskerrik asko, Jaio. Ez agurrik, ez adiorik.


Arturo eta Laura



Jaione Anso Eguren

Besarkada bat, Jaio.

Bakaikuko zure koadrila



Juan Francisco Oyarbide Araña

«Patxi»
I. urteurrena

Betirako gure bihotzean egonen zara. Eskerrik asko.

Etxekoak
Etxarri Aranatzen, 2015eko urriaren 30ean.



Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

GUAIXE KOMUNIKAZIOA
948 564 275
Foru plaza 23-1 Altsasu
argi@guaixe.eus



GRUPO Funeraria **VASCONGADA** Ehorzketak TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€.
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Higiezinak

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Lizarragako San Clemente festetarako Azi Iturri elkarte hartzeko enkantea. Azaroaren leian, eguerdiko 14:00etan izanen da elkarte bertan. Gutxieneko dirua 600 €

Lakuntzako Kale Txiki taberna alokagai. Tel: 630 62 47 71.

Opatutakoak / galdutakoak

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta

ibilgailuak.

GALDUTAKOAK

Txakurra galdu da Lizarragan. Urriaren 18az geroztik Lizarragan txakur bat falta da. Arratoi-txakur arrazakoa, marroia eta lepoaren azpiko aldea zuria. "Andi" izenari erantzuten dio. Tel: 948 460 656.

Oharra

Irurtzango irakurle taldea. Azaroaren 5ean, ostegunean, 18:00etan liburutegian du hitzordua David Foenhkinoren "La delicadeza" liburua hizpide hartuta.

Olaztiko irakurle taldea. Azaroaren 13an, ostiralean, 21:00etan liburutegian elkartuko da "Tenemos que hablar de Kevin" liburuz hizketatzeko.

Altsasuko irakurle taldearekin. Azaroaren 18an, asteazkenean, 18:00etan Iortia kultur guneko gela txikian elkartuko dira, Jose Migel

Boalen "En los pliegues del viento" liburuz aritzeko.

GoiEneer Iruñean. Landare utzitako lekuan, Joaquín Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabete-ko lehenengo eta hirugarren asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerara sartzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke:

Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

JAIOTZAK

- **Alejandro Otero Madinaveitia,** urriaren 22an Iturmendin.

EZKONTZAK

- **Arkaitz Baleztena Goñi eta Nerea Santesteban Eugi,** urriaren 24an Lakuntzan.

HERIOTZAK

- **Enrique Urdiain Mendoza,** urriaren 20an Ziordian.
- **Juan Mendinueta Lazkoz,** urriaren 21ean Arbizun.
- **Felisa Lizarraga Senar,** urriaren 25ean Dorraon.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

MOTOZIKLISMOA

ALEX MARIÑELARENAK MOTOZIKLISMO-ARI AGUR: Pilotu irurtzundarrak 2014ko otsailaren 27an istripu larria izan zuen. Bi-

zirtza normala egiteko osatu bada ere, medikuek pilotatzeko ezgaitasuna eman diote. Bizitza berri bati ekin beharko dio.

Atletismoa



Angelina Lizarraga Ergoienako Biran.

Sakandarrak Donibane Lohitzune-Hondarribia EHko maratoni erdian

Kaxi Estarriaga 157.a sailkatu zen 2.222 korrikalarik osatutako proban

Igandean Donibane Lohitzune-Hondarribia EHko mendi maratoni erdia jokatu zen (21,097 km). 2.222 pertsona lotu zituzten bi herriak, Antonio Casado buruzela (1:11:49). Korrikalari uholde horren artean hainbat sakandar aritu ziren. Kaxi Estarriaga etxarriarra 157.a iritsi zen helmugara (1:30:46), Jon Arellano altsuasarra 248.a (1:34:08), Jose Javier Beregañu uhartearra 316.a (1:36:36) eta Angelina Lizarraga unanuarra 493.a (1:41:47).

6.000TIK GORA BULAR MINBIZIAREN KONTRA

Saray elkarteak Bular Minbiziaren kontra igandean Iruñean antolatutako lasterketa ez lehiakorrean (5 km) 6.000 pertsona baino gehiagok hartu zuten parte, tartean sakandar askok.

Mendi lasterketak

Beraza EHko km bertikalen txapeliduna beterranoetan

Igandean II. Araia-Aratz Km Bertikalean 7.a sailkatu zen uhartearra, lehen beterranoa, eta Euskal Herriko Km Bertikalen Kopako beterrano onena izan zen. Mikel Rubio promesa mailako bigarrena izan da Araian eta EHkoan, eta Asier Reparaz kadete mailako hirugarrena izan zen Araian

Igandean II. Araia-Aratz Km Bertikala (4,1 km) jokatu zen Araian, Euskal Herriko Km Bertikalen Koparako puntuagarria zen azken proba. 114 mendi korrikalarik osatu zuten proba eta Iñigo Lariz elgoibartarra izan zen azkarrena (36:26). Emakumezkoetan Virginia Perez gasteiztarra gailendu zen (45:10).

Sakandarrak primeran ibili ziren. Jose Luis Beraza uhartearra zazpigarrena sailkatu zen (39:06), probako lehen beterranoa. Mikel Rubio irurtzundarra, berriz, 22.a izan zen (42:45), probako promesen mailako bigarren onena. Asier Reparaz arbizuarrak ere etorkizun oparoa du. 39.a sailkatu zen (46:12), probako hirugarren kadete onena. Bestalde, Joxan Salgado altsuasarra 78.a sailkatu zen (52:12) eta Joxeja Maiza etxarriarra 80.a (52:48).

EHko Kopa

Aurten 6 probak puntuatzen zuten



Beraza, podiumaren gorenean, eta Rubio bigarren harmailan. UTZITAKOAK

Euskal Herriko Km Bertikalen Koparako, Uhartearra Arakil-Berriain Km Bertikalak tartean, eta igandean jokatu zuten II. Araia-Aratz bertikalak erabaki zuten Kopa. Iñigo Lariz eta Virginia Perez izan dira txapelidunak. Jose Luis Beraza izan da Kopako beterranoen mailako txapeliduna. "Oso kontentu

nago, sentsazio bikainekin" adierazi du uhartearrak sare sozialetan. Bestalde, Mikel Rubio irurtzundarra Euskal Herriko Km Bertikalen Kopako promesen mailako bigarrena sailkatu da, eta senior mailan lehen 10 postuetan sailkatu da. Kontentuegoteko arrazoi asko ditu irurtzundarrak.

Aizkora



Iban Resano hirugarrena Euskal Herriko 3. Mailako Aizkora Txapelketan

3. mailan jarraituko du dorrobarrak

Ostiralean Euskal Herriko 3. Mailako Aizkora Txapelketako finala jokatu zen Azkoitian. Sei aizkolari lehiatu ziren, tartean Iban Resano dorrobarrak. Ez zen sorpresarik izan eta hiru kana-erdikoak eta bi 60 ontzakoak erdibitzen azkarrena Xabier Orbegozo, Arria V.a, izan zen (11:40). Eroso aritu zen Arria V.a. Bigarren postua lortzeagatik lehia estua izan zuten Julen Alberdik eta Iban Resano, baina azkenean Alberdik izan zen bigarrena (13:04). Arria V.aketa Alberdik mailaz igotzea lortu zuten eta hurrengo denboraldian 2. mailan arituko dira. Iban Resano hirugarrena sailkatu zen (14:11), mailaz igotzeko atarian, baina hurrengo denboraldian 3. mailan jarraitu beharko du. Eneko Saralegi laugarrena sailkatu zen (14:14), Oier Kañameres bosgarrena (16:02) eta Eloy Corchero seigarrena (16:22).

Mendi lasterketak

Baloiak jokoan jarraituko du Olaztin

Sutegi Futbol Taldeko jokalariek ohiek topaketa egin zuten larunbatean

Erkuden Ruiz Barroso

Berrogehi urte inguru dira Sutegi Futbol Taldeko kide ohiak ez zirela baloi batekin futbol zelai batera sartzen. Gainera, garai horretan ahal zutenarekin jolasten zuten: "guk ez genituen horrelako larruzko baloi onak inoiz izan", adierazi zuen Alberto Landak, Sutegi Futbol Talde ohiaren topaketa egunaren antolatzaileak. Larunbatean, aldiz, larruzko baloi bana izan zuten esku artean, eta gaur egungo Sutegiko neska-mutilei baloi horiek banatu zizkieten. Umeak "liluratu" gelditu ziren opariarekin. Sutegiren jarraikortasuna adierazi nahi zuten horrela.

Sutegi Futbol Taldea 1970 eta 1980 hamarkadetan martxan egondako futbol taldea izan zen. Erregionaleko lehenengo mailara iritsi ziren eta zale asko zituen. Baina taldea desagertu zen. Larunbatean Sutegi Futbol Talde



Sutegi futbol taldeko jokalariek eta zuzendaritzako kide ohiak talde argazkia atera zuten egungo Sutegiko jokalariek. ERKUDEN RUIZ

kide ohiak topaketa egin zuten Olaztin. Futbolari zirenek garaien pasadizoak nonahi entzuten ziren, baita azken urteetan izandako aldaketak ere. Zenbat zahartu diren, garaiko jokalariek hoberenak eta txarrenak zeintzuk ziren, atezainen balentria, aurkariaren jokoa... Erburua kiroldegiko tabernan jarritako argazkien erakusketak bizipenak berpizten lagundu zuten.

Gauzak asko aldatu dira

Futbolari ohiak biltzen ziren bitartean, Erburua kiroldegiko pistan Sutegiko gaztetxoek areto futbol partidua jokatzen zuten. Aurten 40 ume daudela eta pozik zeudela komentatzen zuten beterranoek. Askoren seme-alabek taldean jokatzen dute. "Noiz izan du herri honek horrenbeste jokalaririk? Eta noiz izango ditugu gehiago?" entzuten zuten.

Gainera, haien garaian ez bezala, gaur egun oso gazte hasten direla komentatu zuten. Hortaz, futbolaren arau eta teknikak ikasten dituzte, baita bizitza osasuntsua eramaten ere. "Horrela izan beharko zenuke gure garaian ere; guk plazan jolasten ikasi genuen. Gainera, berandu hasi ginen, ahal genuen tokietan jolasten genuen, parrandan ateratzen ginen...".

Sutegiko haur guztiek baloi bana eramane zuten opari. Nahiz eta talde desberdina izan, Sutegik aurrera jarraitzen duela eta futbolak etorkizuna duela adierazi nahi zuten horrela. Hala ere, futbol zelai egoki bat beharko zutela entzun zitekeen. Egundak, Sutegi areto futboleko eta futbol 7an aritzen da. Beste hainbat kirol taldeak dituzte Sutegik, tartean pilotan eta irristaketan.

Pilota

Ramirez, Galartza eta Arbizu aurrera Nafarroako Gazteen Lau t'erdian

Asteartean hasi zen Nafarroako Gazteen Mailako Lau t'erdiko Torneo: 18. Guillermo Mazo Memoriala. Torneoan 10 klubetako 32 pilotari lehiatuko dira guztira, tartean sakandarrak. Momentuz bi jardunaldi jokatu dira, asteartean Etxarren eta asteazkenean Lekunberri. Aldabideko Goikoetxea txapelketatik kanpo geratu zen tanto eskas batengatik San Sebastian taldeko Jasoren kontra jokatu eta gero. Zorte hobea izan zuten Pilotajaukuko Ramirezek eta Arbizuk eta Aldabideko Galartzak, irabazi eta gero txapelketan jarraituko baitute.

Nafarroako Gazteen Lau t'erdia. Sakandarren emaitzak

Jaso (San Sebastian) **18** - Goikoetxea (Aldabide) **17**
 Ramirez (Pilotajauku) **18** - Baztan (Zugarralde) **1**
 Dequel **8** - Galartza (Aldabide) **18**
 Arbizu (Pilotajauku) **18** - Perez (San Migel) **5**

Triatloia

Benjumearen Saltoki, Espainiako txapeldunordea



Ibizan jokaturako distantzia luzeko Espainiako Triatloi Txapelketan, Saltoki bigarrena sailkatu zen, taldeka

Igandean Espainiako Triatloi Txapelketan jokatu zen Ibizan. 278 triatletak burutu zuten distantzia luzeko proba gogorra. 4 km igerian, 120 km bizikletan eta 30 km korrikan osatu behar izan zituzten. Gomila taldeko Carlos Lopez izan zen azkarrena (6:00:29). Saltoki Trikideak taldean dabilen Felix Benjumea bikain aritu zen. Altsasuarra 60.a sailkatu zen (7:03:17), 7 ordu pasa lehian egon eta gero.

Benjumearen taldea, Saltoki Trikideak, Espainiako Triatloi Txapelketako bigarren talde onena izan zen, taldekako txapeldunordea, Aritz Garciak, Alejandro Jimenezek, Gabriel Garinek, Jesus Goñik, Ion Astigarragak eta Felix Benjumeak egindako lan bikainari esker.

Automobilismoa



Lapuente eta Goikoetxea hirugarrenak Alfaron

Urriaren 18an IV. Alfaro Hiria Lur Eremuarallya jokatu zen Alfaron. 24 taldek lortu zuten egin beharreko hiru eremuak osatzea. Irabazleak Jose Javier Izagirre eta Eneko Gomez eskaldunak izan ziren, 20 minutu pasako denborarekin (Lancer EVO IX, 20:04.700). Javier Goikoetxea koplolu olaztiarrak Ruben Lapuente pilotuarekin bikotea osatu zuen (Clio Sport). Hirugarrenak sailkatu ziren, 42 segundora (20:46.100).

Pilota



Giro bikaina izaten da ikastolako pilota txapelketan. UTZITAKOAK

Iñigo Aritza txapelketako 2. jardunaldia jokoan

Igandean, 17:30ean, Iñigo Aritzako frontoian

Euskal pilota sustatzeko asmoarekin antolatu dute Iñigo Aritzako ikastolako Pilota Txapelketa. Igandean abiatu zen txapelketa, frontoian. Guztira ikastolako 46 ikaslek hartuko dute parte, hainbat kategoriatan. Igandean bigarren

jardunaldia dago jokoan, 17:30etik hasita, Iñigo Aritzako ikastolako frontoian.

2. jardunaldia

Igandean, 17:30ean

- LH3:**
 Aimar Igoa - Oier Carabias
LH4:
 Oier Mitxelena - Asier Astiz
LH5:
 Aimar Gracia - Oier Gartzia
 Aimar Bengoetxea - Eneko Andueza
LH6:
 Ekiñe Fernandez - Olatz Galarza
 Oihan Guinea - Aritz San Roman
 Amets Borreguero - Amair Zubiria
 Jon Navarro - Arkaitz Agirretxe
DBH1:
 Angel Vergara - Unai Irigoyen
DBH2:
 Izadi Reparaz - Ioritz Agirretxe

1. jardunaldiko emaitzak

- LH3:**
 Ainhitze Armentia **18** - Amets Izquierdo **6**
 Xabier Olaiz **18** - Enaitz Gonzalez **9**
 Hodei Ulaia **18** - Haizea San Roman **3**
LH4:
 Kepa Amillano **4** - Patxi Azpeitia **18**
 Peru Urteaga **8** - Alain Mendia **18**
LH5:
 Hegoi Lakuntza **3** - Iker Agudelo **18**
LH6:
 Irati Lumberras **18** - Ane Ojer **5**
 Lander Peral **18** - Ander Goikoetxea **5**
 Aritz Sevilla **15** - Aimar Lezea **18**
DBH1:
 Aritz Ulaia **11** - Jokin Senar **18**
 Inhar Olabide **18** - Xabier Bengoetxea **10**
DBH2:
 Aimar Garcia **18** - Patxi Arakama **10**
 Txomin Rubio **1** - Oier Berastegi **18**

Futbola

Sakanako Futbol 8 Topaketa: txikienak hasi dira lanean

Sakanako Futbol 8 Topaketa aurreko astean hasi zen. Igandean bigarren jardunaldia dago jokoan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako kimuen mailako Sakanako Futbol 8 Topaketak igandean hasi ziren. 9 talde lehiatuko dira aurten: Olaztiko Sutegi, Urdiain, Lakuntzako Lagun Artea, Etxarri Aranatz eta Altsasuko Sayas, Dantzaleku, Tipi-Tapa, Kaixo eta Mediolanum. Partidak Altsasuko Dantzalekuko zelaian jokatu dira, Urdiaini etxean jokatzeko tokatzen zaion partidak izanez. Kasu horretan, partidak Urdiaingo Aitziber zelaian jokatu dira.

Urriaren 25etik maiatzaren 22ra bitartean, guztira 18 jardunaldia

di jokatu dira, Gabonetako oporrak, Santa Ageda eta inauterietan izan ezik.

Kimuen Sakanako Futbol 8 Topaketaren 2. jardunaldia

- Igandean Dantzalekuan 11:00etan:**
 Mediolanum - Tipi-Tapa
11:00etan:
 Kaixo - Etxarri Aranatz
12:00etan:
 Dantzaleku - Lagun Artea
12:00etan:
 Sayas - Sutegi
Atsedean: Urdiain



Igande goizero kimuen futbolaz gozatzeko aukera egongo da Dantzalekuan.

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

7. JARDUNALDIA

BURLADES 0 - ETXARRI ARANATZ 3
SAN JORGE 4 - LAGUN ARTEA 1
 Etxarri eta Burladesen arteko lehia, Urkiak Etxarri aurreratu zuen. Etxarriko atezain Gorriek sekulako geldialdiak egin zituen. Bigarren zatian bi gol sartu zituen Xabatek eta 0 eta 3 irabazita bueltatu ziren etxarriarrak Ripaginatik. Sanduzelain, Lagun Artea izan zen aurreratu zena, San Jorge bere atean sartutako golari esker. Nahiz eta bigarren zatian Lagun dominatzen hasi, San Jorge egorerari buelta eman zion eta 4 eta 1 irabazi zuten Iruñekoek.

Sailkapena >>

- 1. Etxarri Aranatz15 p**
6. Lagun Artea10 p

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI ARANATZ - BERRIOZAR
 (Igandean, 16:00etan, San Donaton)
LAGUN ARTEA - ARROTXAPEA
 (Igandean, 15:45ean, Zelai Berrin)

ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa

7. JARDUNALDIA

SALESIANOS 1 - ALTSASU 3
 Altsasuk jaurtikitako corner batek Salesianoseko jokalariei batean errebotatu eta atean sartu eta gero aurreratu zen Altsasu. Martinezek eta Anderrek 0 eta 3 jarri zuten markagailuan. Nahiz eta Salesianosek gol bat sartu, 3 puntuak Altsasura etorri ziren.

Sailkapena >>

- 1. Doneztebe21 p**
9. Altsasu8 p

Asteburuko jardunaldia

ALTSASU - LEZKAIRU
 (Igandean, 15:30ean, Dantzalekuan)

ELOMENDIKO TXAPELKETA

B MULTZOA. 1. FASEA. 6. JARDUNALDIA

ZALDUA 1 - ELOMENDI 2

EGIARRETA atsedean jardunaldia du.

Sailkapena >>

- 1. Beriain16 p**
2. Egiarreta9 p
5. Zaldua6 p

Asteburuko jardunaldia

EGIARRETA - OROBIA
ZALDUA - BERIAIN

Areto futbol

Magna Gurpea bosgarren postura igo da

Talde berdeak 4 eta 1 irabazi zion D-Link Zaragozari

Talde berdeak garaipengarrantzitsua lortu zuen D-Link Zaragozaren kontra. Azken hiru partidak irabazi eta gero, lehen mailako sailkapenean bosgarren postura igotzea eta arerio zuzenekiko tartea zabaltzea lortu du. Horrek, gaur, El Pozo Murcia talde boteretsuaren kontra aritzeko adorea emango dio Magna Gurpear. Zaragozako defentsa apurtzeko lan bikaina egin zuten Imanol Arregiren mutilek. Eserverrik sartutako lehen golarekin joan ziren atsedendira. 2. zatian Victorrek bigarrena sartu zuen, Dani Saldisek hirugarrena eta Rafa Usineklau garrena. D-Link Zaragozak markagailuan gerturatu zuten lortu zuen, eta partida 4 eta 1 irabazitadespeditu zuten Magnakoek. "Merezitako garaipena izan da, justua" azaldu zuen Imanol Arregik. Sailkapenean Inter Movistar da lidera (21 puntu). Magna Gurpea 5. a da (13 puntu). Gaur, ostiralean, 21:00etan, sailkapenean hirugarrena den El Pozo Murcia izango du aurkari Magna Gurpeak, Murtzian "Eurak dira faboritoak, baina gu lehiatzera aterako gara" adierazi du Imanolek.

Atletismoa

Davies eta Beunza txapeldun Urdiainen

Beunza eta Audikana olaztiarrak izan ziren Sakanako Herri Lasterketa-La Burundesa Sariako lehen sakandarrak

Sakanako Mankomunitateak hainbat entitate eta babeslerekin antolatutako 15. Sakanako Herri Lasterketa-La Burundesa Sariak giro bikaina sortu zuen Urdiainen larunbat arratsaldean. Mank-ek Dantzaleku Sakana atletismo klubaren, Urdiaingo Udalaren, Aitziber elkartearen eta Urdiaingo Gazte Asanbladaren laguntza izan zuen lasterketa antolatzeko, eta La Burundesa eta Urdiaingo komertzioak izan ziren babesleak. Eguraldia lagun, lehenik eta behin kategoria txikiko lasterketak jokatu ziren. Atletismoak etorkizuna baduela argi geratu zen, 122 neska-mutikok hartu baitzuten parte bertan, espero baino gehiago. Ondoren, proba nagusiaren txanda iritsi zen. Lasterketa hasi baino lehen, minutu bateko isilunea gorde zen duela gutxi zendutako Benigno Mendia urdiaindarraren alde.

Proba nagusian, Urdiainen prestatutako 2,3 km-ko zirkuituari 3 buelta eman behar zizkioten izena eman zuten 70 korrikalariak (6,9 km). Horietatik 11 emakumeak ziren. Ibilbidea oso gorabeheratsua zen, aldapa dezenterekin. Kadeteek ere proba nagusian parte hartu zuten, baina beraiek 2 buelta eman zizkioten ibilbideari. Lasterketa hasi bezain pronto Owen Davies iruindarrak hartu zuen aurrea, Raul Audikana olaztiarra, Jon Otermin urretxuarra eta Sergio Garcia de Eulate altsasuarra gertu zituela. Lasterketak bere horretan iraun zuen, helmugara heltzeko 800 metroren faltan Daviesek erritmoa indartu arte. Horrela, ingelesa bakarrik iritsi zen helmugara (24:24), Raul Audikana olaztiarrari 5 segundo aterata (24:29). Jon Oterminek osatu zuen podiuma (24:34). 27 urteko ira-

bazleak adierazi zuenez, "oso lasterketa polita izan da. Nafarroa toki pribilegiatua da". Raul Audikana pozik zegoen egindako lanarekin. "Hasieratik erritmo bizia jarri dugu. Hasieratik hartu du aurrea Daviesek, baina hirugarren bueltan harrapatu dugu. Hala ere azkeneko aldapan erasoajodu, eta ezin izan dugu harrapatu. Gogorra izan da lasterketa. Urdiainen... badakizu. Aldapak daude eta bagenekien zer zegoen. Jende asko etorri da proba ikustera, giro polita sortu da, jendeak asko animatu du eta pozik" zioen olaztiarrak. Olaztiarrak puntan daudela entzunda, irribarre egin zuen. "Izaskun ere oso fuerte dago; Olaztiko herria... ongi dabil" adierazi zigun.

Izan ere, emakumezkoetan Izaskun Beunza olaztiarrak ez zuen areriorik izan (30:25). Minutu pasako alde atera zion Eguzkiñe Zabalera leitzarrari (31:47). Ginesa Lopez altsasuarra osatu zuen podiuma (32:03).

Kadeteetan 7 sakandar lehiatu ziren eta Iker Mintegi altsasuarra izan zen txapelduna (16:56), Jon Aldasoro urdiaindarraren (19:43) eta Ekain Alegre altsasuarren (20:18) aurretik. Jubeniletan Oihan Vinagre altsasuarra (29:44) eta Andrea Claver altsasuarra (40:34) gailendu ziren.

Sariak eta auzatea

Sariei dagokionez, txapeldunek, Owen Daviesek eta Izaskun Beunzak, txapelak jaso zituzten, Urdiaingo Ezti Iturri landetxean bi pertsonendako egonaldia eta Lopez de Goikoetxea harategiaren eskutik Urdiaingo produktuez osatutako loteak. Lote bikainak jaso zituzten ere bigarrenak eta hirugarrenak, beterano onenek (3 mailatan), jubencil onenek eta kadete onenek. Baita lehen sakandarrek eta lehen urdiaindarrek



Owen Davies eta Izaskun Beunza, helmugara iristerakoan.



Raul Audikana bigarrena izan zen.

ere. Horretaz gain, lehen gizonzko sakandarrak, Raul Audikana, bi pertsonendako afaria jaso zuen Kaluxa tabernan eta lehenengo emakume sakandarrak,

Izaskun Beunzak, bi pertsonendako afaria Mareo tabernan. Lehen urdiaindarrak, Borja Gonzalezek, Errigorako saskia jaso zuen, Udalaren eskutik, eta ema-

Sakandarrak 15. Sakanako Herri Lasterketa-La Burundesa Sarian

1.	Owen Davies (Iruñea)	24:24
2.	Raul Audikana (Olaz)	24:29
4.	Sergio Garcia de Eulate (Alts)	24:44
7.	Adur Senar (Lak)	25:22
8.	Javi Moreno (Alts)	25:26
12.	Iban Gonzalez (Urd)	25:55
14.	Aritz Pellejero (Lak)	26:17
15.	Fco. Javier Gomez (Alts)	26:17
16.	Gorka Garcia de Eulate (Alts)	26:58
18.	Juan Carlos Gomez (Alts)	27:32
19.	Asier Pellejero (Lak)	27:33
20.	Ioni Araña (Arb)	28:10
21.	Mikel Lakuntza (Alts)	28:10
24.	Luis Areta (Lak)	28:54
25.	Iban Sobredo (Alts)	28:54
26.	Asier Ansa (Alts)	29:06
28.	Urko Agirre (Itur)	29:29
30.	Jokin Vilariño (Uhar)	29:42
31.	Oihan Vinagre (Alts)	29:44
33.	Juantxo Azurmendi (Alts)	29:58
35.	Izaskun Beunza (Olaz)	30:25
36.	Santi Agirre (Itur)	30:31
39.	Aingeru Azazeta (Alts)	32:02
41.	David Trejejo (Olaz)	32:30
42.	Imanol Puerta (Alts)	32:36
43.	Maite Zabaleta (Etx)	32:55
46.	Andoni Okaña (Urd)	35:36
49.	Silvia Perez (Alts)	36:36
50.	Isabel Pozueta (Alts)	37:11
51.	Belen Mendoza (Alts)	37:12
52.	Josune Senar (Etx)	37:19
53.	Xabier Ramirez de Alda (Alts)	37:20
57.	Andrea Claver (Alts)	40:34

Kadeteak

1.	Iker Mintegi (Alts)	16:56
2.	Jon Aldasoro (Urd)	19:43
3.	Ekain Alegre (Alts)	20:18
4.	Euken Perez (Urd)	20:31
5.	Patxi Arakama (Urd)	21:03
6.	Beñat Mendez (Urd)	21:03
7.	David Arzo (Iruñ)	21:23

kumerik ez zenez aritu, lehen kadete urdiaindarrak, Jon Aldasoro, jaso zuen Errigorako bigarren saskia. Probako adinduen Gotzon Auzmendi ordiazarra izan zen (36:02). Bukaeran auzate ederrez gozatzeko aukera izan zuten eskura parte-hartzaileek.

Lasterketa Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sarirako baliagarria zen. Kopa erabakitze lasterketa bat geratzen da, abendua-ren 8an Altsasun jokatu den Barricarteren 35. Oroimenezko Lasterketa.



Minutu bateko isilunea gorde zen Benigno Mendia zenaren omenez.

Domu Santu egunerako zentruak eta loreak



Unamuno



TRANSGENIKORIK GABE

948 562 829 • Faxa: 948 563 002 • Ondarria industrialdea • ALTSASU

kultura >>

IPUIN KONTALARIAK ZIORDIAN ETA ALTSASUN: Baudut taldeak musikaz lagundutako ipuin kontaketa eginen du gaur, 18:30ean, Ziordiko liburutegian. Altsasuko Iortian, 19:00etan, Lur Usabiaga ariko da.

Dozena bat ikasgela bertsoetan

Sakanako 11 ikastetxeetako 6. mailako 12 taldek Bertsolaritza eskolan programa izanen dute ikasturte honetan. Asteko saio bana izanen du talde bakoitzak, 15 saio osatu arte. Programaren helburua komunikatzeko gaitasunak areagotzea da, mintzamina bereziki, hizkuntzaren bat-bateko erabilera sartuz. Bertsoak ikaslearen norberaren konfiantza eta segurtasuna sustatzen ditu, hari ikusaraziz bere komunikazioa hobetu daitekeela eta hitz-jarioa indartu. Programak bertsoaren ezaugarriak landuko ditu: teknika, erritmoa, metrika eta errima. Gainera, bertsoaren ahozko tra-

dizioa euskal literaturan nolako izan den ezagutaraziko da.

Nafarroako Bertsozale Elkarteak ematen ditu saio horiek. Duela bi urtera arte Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza zuten. Baina hori eten egin zuen eta toki-administrazioen laguntzagatik egin zuten programak aurrera. Sakanako Mankomunitatea izan da elkarte lagundu duen erakundeetako bat. Hezkuntza Departamentuak jakinarazi du udazken honetatik aurrera berriro ere Bertsolaritza eskolan programa diruz lagunduko dela. Nafarroako Bertsozale Elkarteak programa egonkortu eta zabaltzeko departamentuarekin harremanak hasi nahi ditu.



Sakanako taldeak			
Noiz	Herria	Ikastetxea	Talde kopurua
Lastailetik otsailera	Irurtzun	Atakondoa	1
	Etxarri-Aranatz	San Donato	1
	Etxarri-Aranatz	Andra Mari	1
	Iturmendi	Arrano Beltza	1
	Altsasu	Zelandi	2
Otsailetik maiatzera	Altsasu	Iñigo Aritza	1
	Uhartea Arakil	San Migel	1
	Lakuntza	Luis Fuentes	1
	Altsasu	Jesusen Bihotza	1
	Olatzagutia	Domingo Bados	1

Hungariako haur abesbatza Etxarrin

Igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan

Marczibányi Téri Kodály Iskola Gyermek kara haur abesbatza Budapesteko Zoltan Kodaly Musika Eskolatik dator. Lehen Hezkuntzako arte-eskola bat da, Budapestko Marczibányi kalean, eta behin baino gehiagotan ohoratu dute: besteak beste, Hungariako Ondare eta Hezkuntzaren Artea Hungarian sariak jaso ditu. Halaber, hainbat koru-lehiaketa irabazi ditu abesbatzak, bai nazio-mailan nola nazioartekoan. 2011n Junior Prima Award saria jaso zuen, Hungariako Herri Artea eta Hezkuntza Publikoa kategorian.

BAT-erako txartelak salgai



Euskal Herriko Bertso Afari Txapelketa (BAT) Etxarri Aranazko Karri-keste Elkarte-an jokatu da azaroaren 13an. Bertsoetan Battit Crouspeyre (Baigorri, Nafarroa Behera), Mikel Lasarte (Barañain, Nafarroa), Eneritz Artetxe (Azkoitia, Gipuzkoa), Xabier Igoa (Aramaio, Araba), Malen Amenabar (Larrabetzu, Bizkaia) eta Saats Karasatorre (Etxarri Aranatz, Nafarroa) ariko dira. Txartelak Etxarriko Xapatero eta Leku Ona tabernetan salgai daude, igandera arte.

Etxepare sariko album ilustratua kalean

Haurrendako euskarazko album ilustratuak argitaratzen ditu Etxepare sariak. Nafarroako hainbat toki administrazioetako euskara zerbitzuek antolatzen dute sariketa eta haien artean dago Sakanako Mankomunitatea. Bederatzigarren edizioan Pello Añorga idazlearen eta Jokin Mitxelena ilustratzailearen *Munstroek ere pixa egiten dute ohean* (2015, Pamiela) liburu ilustratuak irabazi du Etxepare saria. Sariketa irabazten duten bigarren aldia da; lehena 2006an izan zen,



Gerlari handia lanarekin.

Liburuko protagonista Valentina neska ausarta da eta liburuan

ageri diren zazpi munstroei laguntza eskainiko die. Sortzaileek munstroen lurraldea leku dibertigarri gisa aurkeztu dute. Munstroek eta haurrak ohe berean lo egiten dute, haiek umea bezain beldurtiak baitira. Maurice Sendak-en *Where the Wild Things Are* (euskaraz: *Piztiak bizi diren lekuan*; 2000, Kalandraka) eleberri klasikoari keinu bat egin dio obrak. Epaimahaiak hasieran "lerroz lerro puzten doan beldurra" akaberan "barre algarra eta lasaitasun" bihurtzen dela nabarmendu zuen. Era berean, hitzei "musika" dariegela esan zuen.

+www.guaixe.eus

bazterretik

Izaskun Beunza

San Mames barria

2007an San Mames Barria SL Administrazio Kontseiluak Estadio Berriaren Eraikuntza Proiektu Oinarrikoa onartu zuen; 2009an obren zuzendaritza Idom enpresari esleitu zion eta 2010ean lehendabiziko harria kokatu zen ekitaldi sinboliko batean.

San Mames berriak eraikin zaharrenekin alderatuz gero, 58.000 ikusleetatik 53.000etara murrizten du edukiera eta hiru anfiteatro handi edukiordez, bi handi eta hiru garren bat txikiagoa ditu. Proiektuak 160 milioi euroko inbertsioa izan du, eta futbol zelai berria izateaz gainera, San Mames alder-

diaren ordenazio eta erregenerazio urbanistiko berriak erarri du, hiriburura sartzeko bide-sare berri baina Euskal Herriko Unibertsitateko Teknologia Kanpusaren kokatzea ere ahalbidetuz.

Egun, 2016. urteari istear den honetan, ezaguna da estadio berriaren estalkiaren inguruko polemika. Euriak San Mameseko gonbidatu zitala izaten jarraitzen du, eraikinaren beheko harmailaren lehendabiziko ilaretara iritsiz, eta bertako ikusleak bustiz.

Asteburu honetan bertan ikusle batek Deia egunkarian azaltzen zenez, aurreko osteguneko partiduko bigarren denbora ikusteko, bere eserlekua utzi eta tabernara

joan beharra izan zuen. Haserre, amorrua eta etsipena ageriak dira Athletic-eko zaleen artean.

Idom ingeniariak azaldu duenez, estalkiak harmaila osoa proiektio bertikalean estaltzen du, zelaia mugatzen duen hesiraino iritsita. Baina, euriaren intentsitate, indar eta direkzioaren arabera, hegoaldeko tribunaren beheko zonaldeko ilara zenbaki aldakor batera sartu daiteke.

Enpresak bere burua zuzitzen du hasierako proiektu batean zelai osoa estaltzeko proposamena aurkeztu zuela esanez. Instalazio guztia estaltzen zuen estalki bilgarria proposatu zen, baztertua izan zena eragiten zuen kostuagatik.



Arazoaren aurrean, Athletic-eko Zuzendaritza irtenbide posibleak aztertzen ari da. Dena dela, konponbideak garestiak izateaz gainera, teknikoki ez dira guztiz bideragarriak. Izan ere, eraikinaren egitura

ez dago alde zuzenetik kalkulatu eta egun estadioa estaltzeko proposatzen ari diren estaldurei eusteko. Lonazko estaldura arin batek ere aurretik kontuan hartu beharreko karga sortzen du eta.

Oskorriren zein kanta da zure gustukoena?



www.guaixe.eus web orrian galdera horri erantzuna ematen diotenen artean taldekideek sinatutako kartela eta Mauleko kontzerturako pertsona batendako bi sarrera zozketatuko ditugu

Oskorri taldeak 45 urteko ibilbideari akabera ematea erabaki du. Euskal

Herria eta Bartzelona hartu dituen *Hauxe da despedida* birarekin ari dira agurra esaten. Zortzi kontzertu aurretik kontzertuak diren emanaldiei batuko zaizkienak. Oskorri 30 diskotik gora kalera-tutu ditu, ia 500 kanta grabatuta utziz.

Oskorri zenbait belaunaldiren soinu-bandaren parte dira eta tal-

Nola parte hartu

www.guaixe.eus web orrian honako titularra duen albistea izanen da: Oskorriren zein kanta da zure gustukoena? Albiste horretan sartu eta bukaeran dagoen erantzuteko espazioan gustuko izenburua idatzi beharra dago. Kantu bat parte-hartzaile bakoitzeko.

Iruzkina idazteko baldintza bakarra Guaixe.eus Komunitateko kide izatea da. Dagoeneko baldin bazara, komunitatean sartu, aipatu albistera jo eta erantzuteko eremuan zure gogoko kantuen titulua idatzi dezakezu. Komunitateko kide ez bazara, aipatu albiste-

an bertatik eman dezakezu izena. Erabiltzaile izen bat, e-posta helbide bat eta pasahitza besterik ez dira eman behar. Kudeatzaile batek benetako datuak eman dituzula ziurtatu eta eskera onartuko dizu. Eta hortik aurrera web orrian edozein iruzkin, argazki edo bideo igotzeko aukera izanen duzu.

Erantzunak azaroaren 12ko 10:00ak arte eman daitezke. Erantzuna ematen dutenen artean Oskorriko kideen agurreko birako kartel sinatua eta Oskorriko azaroaren 14an Maulen eskainiko duen kontzerturako pertsona batendako bi sarrera zozketatuko ditugu.

dearenak dira euskal kantutegiko abesti esanguratsuenetako batzuk. Eta guk jakin nahi dugu Oskorriren doinuen soinu-banda

sakandarra zein den. Horregatik, galdera hau erantzutea eskertuko genizuke: Oskorriren zein kanta da zure gustukoena?

Antzerki zikloa despeditzeko asteburuan sesio bikoitza

Gaur, 22:00etan, El Buceren *Nosotras* eta igandean, 20:00etan, Txalo produkzioen *Erdibana* antzezanak ikusteko aukera izanen da Irurtzango kultur etxean

Irurtzango antzerki zikloa asteburuko bi emanaldiekin despedituko da. Hasteko, gaur, Leire Ruiz (Isabel) eta Maiken Beitia (Josefina) aktore nafarrak eszenatokia igoko dira *Nosotras* antzezanaren jokatzera. 40ko hamarkadara eramaten gaitu Alberto Iglesiasen obrak. Bi ahizpa, bata errepublikarra, beste frankista. "Minagatik eta ezinikusiatatik"



banatuak dauden bi ahizpak hiru egoeratan bat egiten dute eszenatokian: milizia eta espetxeko

egoera gogorretan lehenik eta erbestean azkenik. Ezindute elkar ulertu. Elkar besarkatu nahiko

lukete, baina ezin diote bereari utzi, beste arazoia ematea litza-tekeelako.

Komedia beltza euskaraz

Umoresu despedituko da antzerki zikloa igandean. Jose Ramon Sorozek eta Iker Galartza aktoreek jokatzeko dute *Erdibana* antzezanarekin. Bien ama azkenetan da, enbolia eta gripeak jota. Anaietako batek burusoil gertzen ari den emakume berekoa du, enpresa hondoratzeko arriskuan eta erretreta hartzeko garaia gero eta urrutiago; beste anai ama zaintzeaz arduratzen da.

Diru gutxi aurreztuta eta saldu beharreko etxe bat. Amari bultzadatxo bat eman nahian, amagabeko gau batean, ezkutuan gordetako sekretuak eta hainbat elementu gehiago sortuko dira.

Memoria ariketa El Drogas eta La (Des)Memoria Bandekin

Larunbatean, 22:30ean, Etxarri Aranazko kultur etxean

Laukotearen emanaldia maila kolektiboan eta indibidualean izan daitezkeen memoriari edo memoria faltari buruzkoa da. 1936koa gogoan, Barricadak *La tierra está sorda* diskoa argitaratu zuen 2009an. Disko hartako kantuen bertsioak joko ditu laukoteak Etxarri Aranatzeko. Eta haiekin tarte-katuko ditu El Drogasek 2013an argitaratu zuen *Demasiado tonto en la corteza* disko hirukoitzeko lehen diskoko, *Alzheimer*, kantuenak. +www.guaixe.eus



Anari, Altsasun zuzenean

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Anari Alberdi kantuegilea, kantaria eta gitarrak-joleak bere azken diskoa, *Zure aurrekari penalak* (2015, Bidehuts) aurkeztuko du bihar Altsasun. Sei urteko etenaren ondoren heldu da Anariren bosgarren diskoa. Tempo ertaineko baina geldoko bederatziko doinuk osatzen dute lana. Iortia eszenatokian bere proposamena defendatzeko Anaririk Borja Iglesiasen (gitarra), Mikel Abregoren, Drake, (baxua), Mariano Hurtadoren (pianoa eta teklatuak) eta Mikel Txopeitiaren (bateria) laguntza izanen du.

Lanaren aurkezpenean Anaririk Berriari emandako elkarrizketan esan zuen intuizioak gidatuta, idatiztikora baino gehiago ahozko-



sunera jotzen duen lana ondu duela. Aurreko diskoan, *Irla izan* diskoarekin bilatzen zuen hori orain aurkitu duela esan zuen; idazkeran aldaketa bat, beste modu bat. Eta ederra dela zuzenean jotzeko.

Sakanako Berria-lagunek, Sakanako Mankomunitateak eta Altsasuko Udalak antolatutako kontzer-

tua da. Anaririk azken diskoa aurkeztuko du, baina, horretaz aparte edo horren gainetik, atzera begiratu eta efemerideak ekarriko dizkigu gogora. Duela 25 urte sortu baitzen Egunkaria eta duela 12 hartu zion lekukoa Berriak (sarreretatik ateratako dirua Berria fundazioarendako izanenda). +www.guaixe.eus



Non erabili

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA

ALTSASU

%5eko deskontua osagarrietan.

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua depilazio-etan.

HOSTO GORRI ALTZARIAK

ETXARRI ARANATZ

Dendako produktuetan %5eko deskontua.

ARGIRO OPTIKA

ETXARRI ARANATZ

%15eko deskontua graduatuetan eta %5 eguzkitakotan.

ZELANDI KIROLDEGIA

ALTSASU

Lehenengo matrikula doan.

LA CIGÜEÑA

ALTSASU

60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

IZARA

ALTSASU

50€ baino gehiagoko erosketetan % 5eko deskontu zuzena, enkarguetan izan ezik.

TXIKITXO

ALTSASU

60€tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

NAMASTE YOGA

ALTSASU

Bi yoga klase doan.

TIPI TAPA OINETAKOAK

ALTSASU

60€ko erosketatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 5%	euria: 10%	euria: 28%	euria: 78%	euria: 45%	euria: 20%
Min: 11 Max: 20	Min: 13 Max: 18	Min: 11 Max: 17	Min: 13 Max: 16	Min: 11 Max: 15	Min: 9 Max: 16	Min: 9 Max: 16

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	22	5.5	9.6
Etxarri A.	21.6	4.5	12.1
Altsasu	21	5	1.4
Aralar	18.5	2.8	31
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
3	11	19	25

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor
SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

LASTAILEKO SARIAK:

1. SARIA:
Ekainberri kobazuloetarako sarrera, Artazako kanpinerako deskontua, Lacturale lotea, Artiumerako sarrerak, Gaztezulo aldizkarirako harpidetza eta Magna Gurpearako bi sarrera.

2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako kanpinerako deskontua, Lacturale lotea, Artiumerako sarrerak, Gaztezulo aldizkarirako harpidetza eta Magna Gurpearako bi sarrera.



>> 11 galdera

Jose Manuel Armendariz eta Alberto Landa

Sutegi Futbol Taldeko kide ohiak

Testua: Erkuden Ruiz Barroso

- 1.- Noiz sortu zen Sutegi Futbol Taldea?
Duela berrogei urte, 1975 urtean, gutxi gorabehera, sortu zen. Hamasei edo hamazazpi urte ginen.
- 2.- Nola sortu zen?
Olaztin bi apaiz zeuden, Manuel eta Jabier, eta klub bat egitea pentsatu zuten, gazteek zerbait egiteko helburuarekin. Horrela sortu zen. Hasieran bi talde zeuden: Perusorain eta Sutegi. Perusorainek bi urte iraun zuten eta Sutegik aurrera jarraitu zuen.
- 3.- Non entrenatzen zenuen?
Hasieran eskoletako lurrezko zelai txiki batean entrenatzen genuen. Ahal genuen tokietan.

- 4.- Non jolasten zenituzten partiduak?
Partiduak Azpikodermion jolasten genituen. Hango bizilagun batek soroa prestatu zuen eta aldagelak eta jarri zituen. Ondoren Arkinorruti industrialdean egin zuten zelai berria.
- 5.- Zein izan zen taldearen ibilbidea? Zein mailatan jolastu zineten?
Erregionaleko lehenengo mailan aritu ginen. Partidu asko Erriberan izan ohi ziren. Baina oso garestia zen lehenengo mailan aritzea: federatzeak ordaindu behar ziren, autobusak... Hori bai, autobusak beti beteta joaten ziren.
- 6.- Afizio handia zen, beraz.
Izugarritzko afizioa zegoen. Jende asko joaten zen ikustera, baita kanpoan jokatzeko gogoa ere.
- 7.- Duela berrogei urteko Sutegi Futbol taldea eta gaur egungoa alderatuta, ezberdintasun asko ikusten dituzue?
Gaur egun ia 40 ume daude. Azpiegiturak eta egoera hobek dira. Aurrera jarraitzeko gogoia dago,

- baina zelai artifiziala egin beharoko litzateke. Zelairik ez dagonez, areto futbola eta futbol 7an aritzen dira.
- 8.- Zergatik desagertu zen taldea?
Zelaiak aldatu zenean jendeak joateari utzi zion. Gainera, bizitzaren kontuak zeuden: neskalaguna, soldaduska...
- 9.- Urte asko pasa dira. Elkartzeko eta partiduren bat jolasteko aukera izan duzue?
30 urte inguru daramatzagu esanez gelditu behar ginela eta bazkari bat egiteko nahian. Azkenean zerrenda bat egin genuen eta 70 pertsona inguru elkartu gara. Zaharrenak 67 urte ditu eta gazteenak 46.
- 10.- Futbolarekin harremana izaten jarraitu duzue?
Gaur egun futbol taldean umeek ditugunok bai jarraitu dugu. Besteek ez.
- 11.- Zuen arteko harremana mantendu duzue?
Gehienak Olaztikoak gara. Kanpoan bizi direnekin ere harremana izaten jarraitu dugu.



egutegi pertsonalizatuak enpresa eta partikularrentzat

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus